

Soldadutzaren aurkako ihardunaldiak

ARRASATE ^{PRESS}

170. zenb.

1992ko azaroak 13

Elkarrizketa
Luis del Carmen
erreformaz

Kepa Otxoa

Garraiolarien ibilerak



Palazio (Udala)

X VII. gizaldi erdi inguruen Martin Barrutia kapitana jasoak etxie. Fatxadan Barrutia de Etxagilenen harmarrixen agiri dau, kalien Banco Guipuzkoanok etxiek daukatena modukue.

Gaur egun bertan Luxia Otaduy eta bere hiru seme-alaba, Jesus Mari, Inaxio eta Arantxa bizi die.

Luxian amak erosi eutsen etxie ugezabari Adan de Yar-zari.

Luxia eta bere gizona zana, Antonio Plazaola, baserritik bizi izan die beti. Gaur be famatuek die bertako gaztaiek.

250 bat ardi inguru dauke. Udalatx inguruen ibiltten ditue normalien eta negu aldien



Elorrixoko eta Gellauko zalaxetara eruten dittue.

Lehen Luxia Mundraueko plazara jasten zan etxeko jenerue saltzen. Ederto asko akordetan da zelan bueltetan

zien asto gainien jarritte bera eta beste auzotar batzuk barriketaldi batzuk eginaz. Oin ez die plazara bajetan baiñe inguruko herrixetako ferixetara bai, faten die (Elorrixo,

Eibar...)

Etxe hontako semie dou Jesus Mari Plazaola, aurten Ardi Txakur Txapelketan Guipuzkue eta Euskal Herri mailan irabazle izen dana.

OYAL

**%10eko deskontua
umeentzako
erropetan***

URTEURRENEKO SALMENTA



Erdiko kale, 48 ARRASATE Tfnoa: 79 18 00

* Azaroaren 16tik abenduaren 1erarteko baliodun eskaintza

GATZAGAN,

erdi erdian...

ZUHAITZ jafetxea



• Txitxinpe •

Bereztasunak:

Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrakArrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76LORATEGI
tabernaIturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATEMemesa
79 42 22Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Zurezko iltzeak

Robert Grenier, Kanako Red Bay-en ondoratutako baleuntzien ikerketa proiektu buruak, denbora asko ez dela Bilbon emandako hitzaldi batetan azaldu zituen 1540 urte inguruko euskal untzitan egindako aurkikuntza batzu.

Konkretuki, leku hortan ondoratutako itsasuntzi asko eta askoren arzarrenak omen daude eta urpeko museo gisako zerbaite bilakatu da Red Bay. Bertan dihardute itsas arkeologoen aztarnak identifikatzen eta ikertzen.

Eta harrizkoa suertatu zitzaizen urperatutako zenbait unti nola eginda zeuden ikustean, eskuetan gelditzen zitzaizkiela zenbait zati eta ez beste batzu. Zergatik izango, eta ohartu ziren errez apurtzen zirela burdinezko iltzez jositako zatiak baina ez hala zurezko iltzez lotuak, hainbeste mende ondoren ez zirelako usteldu. Honela, konturatu ziren zuhaitz jakin batzuen egurrez egindako iltzeak jartzen zituztela urerekin kontaktuan zeuden lekuetan eta burdinazkoak berriz bestetan.

Euskaldunen bale-untzia omen zen gainarakoen prototipoa. Ondoratutako untzietako aurkikuntzak frogatzen omen dute baleuntzien teknologia menderatzen zutela euskaldunek eta garaiko teknologia aurreratuena zutela, gaur egungo transbordadore espazialaren teknologiarekin konpara daitekeena.


Bale-arrantza eta batez ere makailuarena zela eta, aspalditik omen zebiltzan euskaldunak Terranovako bideetan. Atlantiko Ozeanoa gurutzatzeko untiak ez zitezkeen Mediterraneoarako gisakoak izan. Ameriketako alde hori duela mila urte ezaguna omen zen bikingoentzat eta baita euskaldunentzat ere, Colon joan aurretik.

Baina nabegariak ezkutuan gordetzen zituzten bere sekretuak. Jendea enteratu ezker, asko izango ziren bertaratuko zirenak, haien arrantzako monopolioa arriskuan jarritz.

Duela 4 mende t'erdi gure aurrekoek honelako teknologia garatu bazuten, berehala dator burura zer egiten dugun gaur, lehen mailako industrializazioa egin ondoren bigarren mailakoa egiten asmatzen ez dugunean.

Pentsa daiteke orduan hainbateko baliabideak baditugula gaur ere: natura, zientzia eta teknologia, lanaren antolaketa eta espezializaketa, kapital metaketa... baina eta mentalitatea? Ez ote genuke hobe izango etorkizunari geuk aurre eman behar diogula pentsatzea eta ez besteren baitan egotea?

RUFINA OLASAGASTI



PIXTU

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzasu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanka Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arriburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kopti, Daniel Gokolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Joseba

••••

Non eta nola naturaz gozatu?

railak 25ean kaleratu -tako ARRASATE PRES-sean argitara eman zen eskutitz bati erantzunez, masifikaturiko mendi irteerak naturan duen eragina azpimarratzen zen bertan Besaide M. E.ak eta konkretuki Gazte Ekintza taldeak, ez du irteera hori antolatzeko momentua hartutako erantzunkizuna bazterterik nahi izan inolaz ere.

Baina, bai! Zenbait gogeta egitearen beharra ikusten dugu!

Gaur egun, gizaki bizidunak garen gizon eta emakumeak, gizarte hiritar honetatik ihes egin beharra dugula errealitate bihurtzen ari da. Horretarako aukeratzeko ditugu naturaguneek izaki bizidun ez osatutako oreka mantentzen dute eta ez dago dudarik, gizonen presentziak hola edo hala, eragina baduela oreka honetan. Baina, zein eragin duen gizonaren presentziak naturagune eta mendikirol mota desberdinetan? zein puntututan apurtzen da oreka hori? eta zenbateraino galtzen da gune horietako giza-aberastasuna?

Eta azken honi lotuta, gune guzti hauen ekosistema biologikoaren ikerketa sakon eta serio batzuen beharra ikusten dugula esan beharra dago; eta ez ikerketa hauek gero edozein liburutegitan usteldu daitezten, baizik eta beraiengan oinarrituz, arautegi zehatz bat, gune eta mendi kirol mota bakoitzean finkatu dadin. Beraz, arau batzuk ezartzea beharrezko

lotzen dugu.

Beste puntu garrantzitsua bat kontzientziazioa eta informazioa da. Edozein motako mendi kirola egiten denean, gure presentziak nola-baiteko eragina baduela eta beraz, kontzienteki jokatu behar dugula, jakin dezagun.

Dena den, Guara mendilerroan dauden 100tik gora errekatatik, bi izan ziren aukeratuak, bisitari gehien dituzten errekat (400 pertsona eguneko abuztuan), gure presentziak ordurako degradaturiko ekosistema horretan eduki zezakeen eragina hain larria izango ez zelakoan.

Dena den ez dago eskutatzeko aukerarik, baina bai esan beharra, aurrerantzean antolatzen diren irteera guztiak, aukeraturako naturagunean eduki dezakeen eragina aztertzeke erabakia hartu duela Besaidek.

Eta besterik gabe, benebenetan eskertu nahi dugu, JEL-z sinatutako eskutitzaren idazlea, guztiok naturarekiko ardura izanez eta horrelako arazoek sortzen duten dinamika positiboak argitaratuz, informatu eta kontzientziazteko lehenengo pausuak ematen ari garelako.

ANDONI VILLAR

••••

Eztabaida Zaldibarren

Zaldibarko antolatzaileok, idazki honen bidez hainbat gauza argitu nahi ditugu, txapelketak darman bide txarra ikusita.

Kirola egin, adiskidetasuna sortu, herriari ikuskizu-

na eta gaztediari zeregina eskaintzeko helburuak ez dira betetzen ari. Joku gogorra, irainak, kiroltasunik eza eta antolatzaileenganako kolaborazio falta nagusitzen ari dira, eta okerrera jendearen pasibitate.

Jokalariek, iraindu eta mehatxatu egiten dituzte arbitroak, beraiengan urduritasuna sortuz. Arbitro askok ere, gogo falta erakusten du.

Antolatzaileok kalean kritikak jaso ditugu, gauzak behar den tokian eta momentuan esan beharrean. Beraz, antolatzaile talde honek zailtasun jartzen du txapelketa datorren urtean berrantolatuko duen edo ez.

Urte bukaeran 1.500.000 PTAKo soberakina egongo litzateke beronekin zer egin pentsatu ezean.

Azaroaren 9ko Monterroneko bilera kaxkarrean (38 pertsona + antolatzaileak) dirua taldeen artean banatzea erabaki zen. Gogoeta egin ondoren antolatzaileek erabakia bertan behera utzi dugu, arrazoi hauengatik:

1) Talde hau ez dabil lanean ondoren beste batzuk irabaziak atera ditzaten.

2) Dirua banatzearen erabakiak arazoak sor ditzake: zenbat eta talde gehiago txapelketatik kanporatu, diru gehiago talde bakoitzarentzat, beraz taldeen arteko liskarrak bultzatuko lirateke. Txapelketa finantziazten dutenek, diru soberakina dagoela eta irtenbide egokirik ez zaiola ematen ikusita, dirua bueltatzea eska liezagukete.

Taldeetako delegatuei bilera batetarako deia egingo zaie. Delegatuen partehartzea derrigorrezkoa da, eta azaltzen ez den taldeari puntu bat kenduko zaio.

ZALDIBARKO

ANTOLATZAILE TALDEA

ZENBAKI

Aholkularitza

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39

IRTABERNA


Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80

MUSAKOLA OSTATUA

Taberna
Jatetxea
Bazkariak
Bodak
Banketeak
Gelak

Gipuzkoako Etorbidea z/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako
materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18
ARRASATE

beatriz

oinetakoak eta
poltsak


Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3
ARRASATE

Erabiltzen duzu paper birziklatua?



Miren Garai
Estetizista (28 urte)

Bai, normalean paper birziklatua erabiltzen dut. Baina oraindik ez naiz hasi paperentzako kontenedoreak erabiltzen. Hala ere, uste dut oso asmo ona dela; ea erabiltzen hasten naizen.



Jesus Azkarate
Jubilatua (63 urte)

Egunkariak eta paper horiekin eginiko aldizkari batzuk erosten ditut. Kanpoan egon naiz hilabetez, baina bai, ikusi ditut kontenedore horiek. Oso ondo daudela uste dut.




Mikel Larrañaga
Tailerreko langilea (58 urte)

Gure bulegoan boletinak egiteko eta, paper hori erabiltzen da behintzat. Ni bizi naizen tokian ez dituzte oraindik kontenedoreak jarri, baina kalean ikusten direnek bete beteta egoten dira.



Rakel Gonzalez
Etxekolanetako langilea (21 urte)

Nola birziklatua? Ah!, bai beharbada erabiliko dut, bai. Kontenedoreak ondo daude baina oraindik ez ditut erabili.



Jose Agirre
Jubilatua (72 urte)

Ez, normalean ez. Normalean ikasketa bidaian doazenei ematen diet papera. Bestela kontenedoreetara botatzen dut, baina neskatilak etxera etortzen direnez...



Ana Mari Mondragon
Etxekoandrea (39 urte)

Erabiltzekotan ere, nire seme-alabek erabiliko dute ikastolan. Nik kontenedoreak erabiltzen ditut baina berehala betetzen dira.



Beatriz Romero
Masaialaria (36 urte)

Ez dakit, nire ustez paper birziklatua ez da asko saltzen oraindik. Ez da edozein tokitan saltzen gainera. Baina, hala ere, uste dut ondo dagoela, orain arte paper asko bota dugu zaborretara eta.



Agustin Rejo
Langabetua (24 urte)

Erabili ez baina paper horiekin eginiko egunkaria erosten dut. Kontenedoreak

**OSORIK
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4
ARRASATE

**ARAMAIO
okindegia**

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46

Kabia **altzariak**

Gipuzkoako Etorbidea, 28
ARRASATE Tfnoa: 79 27 70

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Iguatorialdea 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 Oñati 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 00 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterongo liburutegia
 Monterraon 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 31
 Egunez: S. Español, Iturriotz.
Larunbata 1
 Egunez: M. Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.
Igandea 2
 Egunez: J.A. Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.
Astelehena 3
 Egunez: Amezua, Santa Marina.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.
Asteartea 4
 Egunez: Aurora Ruiz, Maala.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.
Asteazkena 5
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.
Osteguna 6
 Egunez: S. Español, Iturriotz.
 Gaeuz: Estella, Matxiategi.

13 OSTIRALA

ZINEA
 "Los últimos días del Edén"
 (7,9,30).

OSASUN HIRITARRARI BURUZKO HITZALDIA
 Osasun hiritar eta langileari buruzko hitzaldia. Arratsaldeko 4.30etan. Monterronen. Hizlaria: Angel Carcoba.

ANTZERKIA
 "Estrategia para dos jamones" antzerkia. Elorrioko Arriola Kultur Aretoa. Gaueko 10etan.

MANIFESTALDIA
 Soldaduzkarako zozketen aurkako kanpainaren barruan, Portaloian arratsaldeko 7.30etan.



14 LARUNBATA

ZINEA
 "Los últimos días del Edén"
 (5,7,9,30)

OSKORRIREN JAIALDIA
 Oskorriren jaialdia. Eskoriatzako frontoian. Gaueko 10.30etan. Takilan 1.500 eta alde zurretik 1.000 PTA.

ROCK KONTZERTUA
 Rock kontzertua. "MCD", "Bilbotarrak" eta "Drap Bruts" taldeekin. Gaztetxean. Gaueko 9etan. 500 PTA.

15 IGANDEA

ZINEA
 "Los últimos días del Edén"
 (5,7,30,10).

MENDIKO IBILBIDEA
 Mendiko ibilbidea. Urkiaga, Aldi-Orreagara. Besaidek antolatuta.

MENDIKO IRTEERA
 Murruxikoko mendi irteera Gorbeara. Irteera: goizeko 8.30etan Partenoitik.

ZERAMIKA ERAKUSKETA
 German Amurrioren zeramika erakusketaren azken eguna. Harresi Aretoa.

SOLDADUZKAREN AURKAKO MANIFESTALDIA
 Soldaduzkaren aurkako manifestaldia. Donostian.

"LOS ULTIMOS DIAS DEL EDEN" ALAI ZINEMAN

Mikel Intxausti

Ikerketa zientifiko batetik abiatu eta ekologiarean aldarrikapenera doan pelikula. Amazonetako basoan errodatur, basoan gertatzen ari den sarraskia eta bertako biztanleen galbidea jasotzen dira. Zuhaitz altuen puntatan ibiltzeak zailtasunak omen ditu baina Sean Connery oraindik sasoiko dago. Irudi ikusgarria, gai unkiagarria, historio polita.



BARRUKO LANDAREEN IKASTAROA

Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan barruko landareen ikastaroa jarri da martxan. Pasa den asteartean hasi zen eta beste lau egunetan ere izango da, egun bakoitzean gai desberdinak aztertuko direlarik. Datorren asteazkenean, hilak 18, mentuak egitea, gaixotasunak eta erreproduktzioa aztertuko dira. Bestalde, 20an dekorazioa eta konposaketa ikusiko dira. Ikastaro hauetan parte hartzeko, plazak mugatuak dira.

16 ASTELEHENA**ZINEA**

"Los últimos días del Edén"
(7,9.30).

IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

Euskal Hizkuntzalaritzaren inguruko ihardunaldietarako izena emateko epea zabalik. Abenduaren 19an itxiko da. Bergarako UNEDn. 15.000 PTA.

LUMAZKO IDAZKETEN ERAKUSKETA

Lumazko idazketaren erakusketaren hasiera. Harresi Aretoan.

SENIDEAK-EN PRENTSAURREKOA

Senideak-en prentsaurrekoa. Urteko balantzearen azterketa. Monterronen. 7etan.

17 ASTEARTEA**ZINEA**

"Los últimos días del Edén"
(7,9.30).

EGURALDIARI BURUZKO HITZALDIA

Eguraldia asmatzeko modu zientifikoa eta baseritarren metodoei buruzko hitzaldia. Monterronen. Arratsaldeko 6etan.

IKASLEEN BORROKA EGUNA

Ikasleen soldaduzkaren kontrako borroka eguna, manifestaldia 12.30etan Portaloian.

18 ASTEAZKENA**FUTBITO BILERA**

Santamainako nesken futbito bilera. Arratsaldeko 7etan. Santamainako Alkatetzan.

KOMIKI LEHIAKETA

Bergarako JARDUN Elkarteak. O.H.O.ko 6. mailatik gorako denentzat komiki lehiaketa antolatu du. Lanak euskeraz izan beharko dira eta hiru talde bereiztuko dira: O.H.O.ko 6., 7. eta 8. maila; 14 urtetik 18ra bitartean eta 18 urtetik gorakoak. Lanen luzaera adinaren arabera finkatuko da, lehen taldekoek gutxienez 2 orrialde, bigarrenekoek 3 eta hirugarren taldekoek 4 orrialde dira aurkeztu beharrekoa. Abenduaren 14an bukatzen da epea eta sari banaketa Gabonetan egingo da. Sariak taldearen arabera finkatu dira eta 35.000 pezetatik, 4.000ra bitartekoak izango dira.

19 OSTEGUNA**EUSKARAREN LEGEARI BURUZKO HITZALDIA**

"Euskararen legeak 10 urte bete ditu" buruzko hitzaldia. Emaleak: Xabier Kintana, Joseba Alvarez eta Joxe Mari Zeberio. Monterronen. Arratsaldeko 7etan.

BESAIDEREN IRTEERARAKO IZENA EMATEKO EPEA

Besaide Mendizale Elkarteak irteera bat antolatu du datorren 22rako. Urkiaga mendatea, Adi eta Orreaga inguruan izango da ibilbidea. Goizeko 7etan irtengo da Garibaitik eta izena emateko epea 19an bukatzen da, Besaideko Egoitzan. Bazkideek 800 pezeta, ez-bazkideek 1100 eta gazteek 400 pezeta ordaindu beharko dute.

SOLDADUZKAREN AURKAKO HAMABOSTALDIA

Deba Garaiko talde antimilitaristak eta AGAKOk soldaduzkaren aurkako hamabostaldia antolatu dute. Pasa den aste honetan hasi dira ekintzak eta datorrenean ere izango da beste hainbat gauza. Gaur ber-

tan, arratsaldeko 7.30etan zozketen aurkako manifestaldia burutuko da Arrasaten, Portaloitik irtenda. Datorren Igandean, 15ean, manifestaldia izango da Donostian. Eta asteartean, 17an, ikasleen borroka eguna burutuko da eta Arrasaten eguerdiko 12.30etan burutuko den manifestaldian Deba Garaiko ikasleen parte hartzea espero da. Ekintza guztiei amaiera emateko 20an rock jaialdia izango da eta La Polla Records, Reincidentes eta Malaña taldeek hartuko dute parte. Horretaz gain, pasa den astelehenean Gaztetxean zabaldu zen kartel erakusketa ere ikusgai dago.

IKUSTEN IKASI ERAKUSKETAREN "KUADROAN BARRENA" ZABALIK

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Turismo sailak "Ikusten ikasi" egitasmoaren barruan hiru erakusketa antolatu nahi ditu. Pasa den asteazkenean horietariko bat inauguratu zen Monterronen, "Kuadroaren barrena" izenekoa. Ikusleari kuadro bakoitza ikusteko era desberdinak erakustea da helburua. Bost izango dira erakutsiko dituzten kuadroak: Vicente Berrueta, Aurelio Arteta, Clara Gangutia, Jose Luis Zumeta eta Vicente Ameztoy. Bestalde aipatzekoa da honetaz gain, beste bi ere izango direla: "Irudiaren agurra" eta "Kolo-reari bidaia".



“Hamar urte hauetan Estatuek ez gaituzte errekonozitzen nazio linguistiko modura, asko jota minoria etniko modura toki batzutan.

Gero aipatu da kontzientzia maila berri bat ari garela lortzen, eta esan nahi nuke inflexio puntua non jarri behar dugun, ea oraindik ere estatu politikoaren ikuspuntutik aztertu behar dugun eta hori izan behar duen euskalgintzaren parametroa edota hamar urte hauetan egin den horretatik kanpo komunitate linguistiko baten interesetatik abiatu behar dugun. Berebiziko garrantzia ematen diot inflexio puntua hor jartzeari.(...) Hamar urte hauetan, aurreratu genezakeenaren herena, laurdena, edo egin genezakeena baino askoz ere gutxiago aurreratu dugu. Ertzantzak adibidez, bertako zer bat izaki edo bertan sortutakoa, euskararena eraso modura hartzeak asko kezkatzen nau. Bestalde, batzuk egiten eman duzuen beste denbora, beste batzuk desegiten eman dute. (...)

Pertsona mailan, euskaldun osoak, edo urte hauetan euskararen alde jokatu duen pertsonak erabateko errekonozimendua behar du. Genozida elkarri deitu eta “demonio batasunoak” bazterretan bilatuz ibilita, ez dugu aurrera egingo, beraz, pertsona mailan ere akordio batetara heldu behar dugu. Bigarrenik, komunitate mailan Arrasateko esperientziatik hitzegin genezake, eta azken urteotan, etsipena nagusitu baino lanerako adorea ugaritzen ari zaigula, beraz herri mailako hitzarmengintzan erabilera maila areagotzeko, denok de facto ados jar gaitezke. Eta hirugarrenik, herri eta nazio mailan politika izan dadila gure inguruan dantzan ibiliko dena eta ez gu politikaren inguruan dantzan. Arrasatek zerbait atera baliteke, hori behintzat bada, azkenik lurralde mailan erabilera ahal eta behar beste ugaritu egin behar dela”.

Julen Arexola-Leibak
Ados-en. 1992-11-9an.



Zer egin behar du gazte batek objetore edo intsumiso izateko?

Objezioa edo intsumisioa egin ahal izateko, lehenik militarren zerrendetan egon arte itxaron behar da. Behin zerrenda horietan egon ondoren, bi bide daude: bata Objezio Legea hartu eta arrazoiak eman, etikoak, humanitarioak, filosofikoak edo erlijiozkoak. Hori eginda, norberaren bizitza pribatua ikertzeko aukera duen tribunal batek, emandako arrazoiak pisuzkoak diren edo ez erabakiko du. Erabakia aldekoa bada, ordezko zerbitzua edo prestazioa egin eta kitto.



Ander Santiago
Kakitzat-eko partaidea

Beste bidea, objezio kolektiboaz ezagutzen dena da. Militarren zerrendan sartu eta gero, defentsa ministraritzari gutun bat bidali behar zaio. Gutun horretan, Objezio Legea, tribunala, soldaduzka ez egiteko arrazoiak eman behar izatea eta ordezko zerbitzua salatzen dira, gaineratuz ordezko zerbitzuari uko egiten zaiola. Une horretan, eginda dago intsumisioa.

Intsumisioen aurkako epaiketak egin izan dira, baina oso kasu gutxitan. Normalean intsumiso guztioi zitazioak, sumarioak ireki... eta horrelako gauzak jasan beharra egokitzen zaigu, baina gehiago ez. Intsumisio kasuetarako gainera, gartzela prebentiboaren figura desagertu egin da, alderdi horretatik espetxera joateko arrisku handirik ez dago eta gaur egun intsumisioa lasai egin daiteke. Zazpi urtez luza daitezke, papeleoak, epaitegietan egin beharreko deklarazioak etab. Dena dela, intsumisioa ez da soldaduzkatik libratzeko paper bat bakarrik, militarren aurkako jarrera erakutsi eta ez joateko konprometuzua hartzea baizik.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55

II. Arte Hamabostaldiko katalogoa aurkeztu

Angel Galipienzo pintore naparraren erakusketaren amaiera ekitaldian, joan den ostiralean eta Harresi Aretoan, II. Arte Hamabostaldiko katalogoaren aurkezpena egin zen. Aurkezpenean II. Arte Hamabostaldian parte hartutako hainbat artistez gain, Udaleko kultur-ordezkariek bildu ziren. Harresi Aretoan bildutakoek gustora hartu zuten katalogoa eta baita inpresio ona jaso ere. II. Arte Hamabostaldiko katalogo hau, lehen Arte Hamabostaldikoarekin batera, laster izango da salgai herriko liburutegietan, 2.000 PTAtan.



Gimnasia erritmikako erakustaldian 95 neska

Oñati eta Arrasateko Gimnasia Erritmika Taldeetako partaideek, ikuskizun ederra eskaini zien kiroldegian bildutako ikusleei, dextente egia esan. Ikuskizunak ordu t'erdiko iraupena izan zuen, taldeko lanek eta bakarkakoek osatuta. Guztira 95 gimnasta izan ziren kiroldegian, Oñatitik 35 eta 60 arrasatear.

Arrasatearrak Behobia-Donostia lasterketan

Berrogeitamabost arrasatear joan ziren pasa den igandean Behobiara, Donostiarainoko bidea korrika egiteko asmoz. Abiatu ziren 55 lagunetik, 44 iritsi ziren helmugara, eta beste 11k ibilbidearen hogei kilometroak bukatu aurretik etsi zuten. Xabier Mentsaka izan zen lehen arrasatearra, 40. postuan eta 1.07.49 denborarekin. Hemendik Behobiara joandako lau emakumezkoetatik, hiruk bukatu zuten lasterketa: Maria Pilar Baldezate, Maria Jose Gil eta Miren Arizmendiarrietak. Beraz, Arrasateko korrikalariak nahiko maila onean.

Obretako bisita

Pasa den ostegunean Udaletxeko Hirigintza Saileko ordezkariak, komunikabideekin batera, Amaia antzokia eta San Kristobalگو hilerriko obrak bisitatu zituzten. Amaia ez da San Juanak arte irekiko; San Kristobal, berriz, otsaila arte ez da irekiko. Dirudienez, hilerriko obren hilabetezko atzerapenaren arrazoien artean, eguraldi txarra eta garraiolarien greba leudeke.

Gaztetxeari, baldintza-zerrenda bat luzatu zion. Gaztetxeak, kontzertuak ezin egitearen baldintza izan ezik, gainontzekoak onartu egin zituen eta kontzertuetarako alternatiba planteiatu: kontzertuak egin, baina 12etarako bukatu. Horretarako, auzokideen onespena beharko zuela adierazi zuen Udalak. Dirudienez, auzoko hiru ordezkari joan ziren bilerara, eta adostasuna erakutsi Gaztetxearen proposamenarekiko. Udalak, berriz, auzokide gehiagoren aldeko iritzia behar zituela adierazi zuen. Horren aurrean, Gaztetxe-koek kontzertua antolatu dute; ostiral honetan izango da, 9etan hasi eta gaueko 12etan bukatzekotan.

Gaztetxea - auzoa - Udala

Gaztetxeko ordezkariak, auzokideenak eta Udala bildu ziren. Jakina denez, zaratak zirela eta, Udalak

Zaldibarko porteriak Deba errekan

Zaldibarko Futbol Txapelketan, kirola baino gehiago beste arazo batzuk dira protagonista. Hasi aurretik, diru-kontuak izan ziren nagusi, eta asteburu honetan berri garrantzitsua izan da, bi porteria Deba errekarat bota dituztela. Dirudienez, bi talde txapelketatik kanporatzearekin zerikusia dauka ekintza horrek. Honelakoetan gertatzen den bezala, kaltetu handienak zerikusirik ez duten gainontzekoak, kasu honetan, goizean goiz jaiki eta futbitoan jokatu beharrean, arrantzuan aritu ziren talde biak; baita atzerapena jasan behar izan zuten gainontzeko taldeek ere.

JAIOTZAK

- Unai Barrena Izurrategi. Azaroaren 2an.
- Eneritz Badiola Apraiz. 3an.
- Maddalen Arratibel Garcia. 5ean.
- Ainhoa Etxebarria Altuna. 5ean.
- Sabin Aranzabal Heriz. 6an.

HILDAKOAK

- Petra Jayo Zabala. Azaroaren 3an. 92 urte.
- Julia Zabala Madina. 3an. 87 urte.
- Luis Mari Iñiguez Sanchez. 4ean. 40 urte.
- Mari Arrate Oiarzabal Arana. 4ean. 46 urte.
- Sebastian Gato Perez. 6an. 72 urte.
- Luisa Aroztegi Albizu. 9an. 81 urte.

EZKONTZAK

- Antonio Soto Carmona & Lurdes Arroyo Serrano. Azaroaren 6an. Zibilez.
- Juan Mari Urrutia Errasti & M^a de las Nieves Miguel Quintero. 6an. Zibilez.

**TXOKO
TABERNA**

Eure berezitasunak pintxo eta mokau gozoak

Otalora Lizentziatua z/g Tfnoa: 79 20 10

ESLU

ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88

ARRASATE



RAKEL ARENAZA *

Kode penal berriak ere abortua penalizatu

Egizanen ustez ez da betere aurreratu; izan ere, ez dira aztertu emakume batek haurdunaldia eteteko dituen arrazoiak eta oraindik ere, ez dira abortua ebitatzeko beharrezko neurriak jarri. Emakumeok ez dugu legerik behar, askatasun osoz erabakitze eskubidea dugula onartzea baizik.

Hala eta guztiz ere, abortua, oraindik desiratzen ez duten haurdunaldiaren aurrean erabaki gogorra hartu beharrean aurkitzen diren milaka emakumeren ezinbesteko irtenbidea da batez ere.

Beste hainbat kontutan bezala, abortua Partzialki Despenalizatzen duen Legean laugarren supostua sartzeko proposamena ezagutu ondoren, sozialki sustrai sakonak dituen arazo baten ondorioak eztabaidatzeari eman diogu, arrazoiak zeintzuk izan daitezkeen alde ba-

tera utzita; eta ondorioz, prebentzio-politika bat martxan jartzeko aukerak murrizten ari gara. Abortatzeko eskubiderik dagoen ala ez, erabakia noren esku dagoen, legezko izatea egiten duten supostuak zeintzuk diren eta antzeko gaiak eztabaidatzen ari garen bitartean, ez da hainbeste eta hainbeste nahigabeko iharduerapen arrazoiak eztabaidatzen. Larriena abortuak eragiten duen angustia omen da, eta ez bere errailetan izaki bat garatzen ari den emakumeari izaki hori

.....

“Gauza guztien gainerik, gure gorputzei dagokienez, erabakia geurea da”

nahi ez izateak eragiten dizkion angustia eta antsietatea.

Barru barruan dauden arazo horiek dira gu emakumeok arduratzen gaituztenak; horiek dira ezer baino lehen, eta hauteskunde kirats susmagarria duten polemiken gainerik, nahi ez diren haurdunaldiak prebenitzeko politika bat esigitzera eramaten gaituztenak. Sexuari buruzko informazio garbia, taburik gabekoa eta haurtzarotik hasita herritar guztiei—inongo salbuespenik gabe— zuzendua nahi dugu, sexualitateari jarrera arduratsu eta konszientearekin aurre eginez, gazte adolezenteetan ematen diren haurdunaldikopuru beldurgarriak ebita daitezzen. Prebentzioa, emakume, gizon eta bikote bakoitzaren beharrei egokituriko antisorgailuak libreki zabaltzea ere bada. Baina libreki erabaki duen emakumeari banetako laguntzak ematea, horretarako beharrezko bitartekoak eskainiz: ekonomikoak, laboralak, etxebizitza...

Emakumeok kokoteraino gaude gure desio, behar, samin eta angustiekin nola espekulatzeko den ikusteaz.

Eta norberak, nahi izanez gero, haurdunaldiari amaiera ematea erabakitze eskubidea aldarrikatzen dugun bezala, emakumearen erabakia lapurtu eta mediku, epaile eta gainerako profesionalen esku uzten duen legeria salatzen dugu.

Gauza guztien gainerik, gure gorputzei dagozkien, erabakia geurea da.

(* EGIZAN-EKO PARTAIDEA

USTEAK USTE

SOZIALISTAK ATEZ ATE

Gipuzkoako goi-mailako sozialisten kuadrila, Maturana jauna buru, ikusi nuen telebistan. Jehovako Lekukoen letxe, txaketa ederra jantzita, Donostiako etxe bateko txirrina jo zuen. Ze itxurako etxeok andre, mutil gazte, ume edo jubilatuk irekiko ote die? Ez nuen asko itxaron behar izan, ate ostean ile-apaindegitik irten berri zirudien emakumea, etxean egon arren igandetako arropa jantzita, eta Colgatez garbitutako irrifarrea aurpegian. Izugarritzko harrera egin zion Maturanaren kuadrilari, telebista aurrean ez zion ardo goxorik eskaini, baina ez zitzaien asko falta izan. Preparatua zegoen, noski! Ez dut uste horrelako harrera asko izango dutenik, sozialistek eurek ere, ez dute antzertzen ari diren antzerkian sinesten eta: “herriarengana gatoz, arazoak gertutik ezagutu eta konpontzeko”. Arazoak konpontzeko gaitasuna behar da, eta sozialistek 10 urtean zerbait erakutsi badute, arazoak arazo handiagoekin estaltzeko gaitasuna izan da.

BEÑARDO KORTABARRIA

Lore lurrindegia

Olarte kalea, 10 TARRASATE fnoa: 79 14 99

URONDO elektrizitatea

- * Elektrogaiak
- * Instalazioak
- * Automatismok
- * Argiztapena
- * Bobinaketak
- * Proiektuak



Kataide Industrialdea 5. Pabiloia,
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76 ARRASATE

Uribarrin, auzoetako arazoak sakabanaketaz areagotuta

Jone Bergaretxek Uribarri baserri auzoko alkatesak dioenaren arabera, auzoko eliza 1.309. urtean eraiki zen, 1.560. urtera arte "Nuestra Señora de la Esperanza" izenarekin ezagutu ez bazen ere. Auzoa bera, dirudienez, 1.415-16 urteen artean eraiki zen.

Uribarrin hogeitahiru baserri daude eta esnea, landareak, fruta edo arraultzen salmentatik baserrietik bizi direnak, bost dira. Normala denez, aipatutako bost baserri horietan garai berrietara egokitu behar izan dute baserria eta negutegiak jarri. Gainontzeko hamazortzi baserriak mixtoak dira, lantegitik bizi baina baserriak lagunduta, eta auzoan guztira 173 lagun bizi dira.

Ohizko arazoak, baina areagotuta

"Auzoko kargua utzi aurretik -zioen Jone Bergaretxe auzo-alkatesak- ura, argia, bideak eta korreorearen arazoak konpontzea nahi nituzke. Baserri askotara ez da urik iristen eta lehengo eran dabilta, manantialak aprobeztatuz. Hiru baserrik, argiarekin arazo handiak dituzte, urrun daudenez tartean poste asko daude eta tentsio jaitsierak gertatzen dira. Baserri askotarako bideak txarto



Datorren urtean konponduko da Uribarriko eliza, 7.000.000 PTako aurrekontuaz.

daude, land-roverrez bakarrik ibili daiteke. Korreoarekin arazo handiak ditugu, batzuk denda edo tabernetan jasotzen dute, beste batzuk Udala edo Gau-txoriko kutxetan, gehienek dute postakutxa korreosen... Gainontzeko auzoen arazoak ditu Uribarririk, baina areagotuta, oso sakabanatuta dagoen auzoa da eta; beraz arazoei konponbidea ematea zailagoa da".

Zaborraren arazoa ere aipatzen zuen Jonek, "gehienok baserrian erretzen dugu eta erre ezin dena kotxean hartu-

ta kaleko kontenedoreetara jaisten".

Arazoez gain, egitasmoak ere badira Uribarrin. "Eliza konpondu nahi dugu eta dirudienez datorren urterako iritsiko zaigu Diputazioaren laguntza; zazpi milioitako aurrekontua daukagu horretarako. Bestalde, bolatokia jartzea komeniko litzateke, hemen zaletasun ikaragarria dago eta."

Abuztuan, San Bartolometan izaten dira Uribarriko jaiak eta bolatokia jaietako gunerik beroena izaten da,

"hiru-lau eguneko jaiak izaten dira, herri-kirolak, bolajokua, bertsolariak... euskal giroko jaiak. Aurten 2.000.000tako aurrekontua izan dugu, Udalak 300.000 PTako dirulaguntza eman zigun eta gainerakoa guk geuk atera behar izan dugu, taberna jarri, enpresei eskatu, zozketak... itxurazko jaiak egiteko urtero egin behar izaten den lana. Tabernan ateratako dirua, zaharrei, gaixoei eta presoei bidaltzen diegu, beraz urtero zerotik hasten ditugu jaiak".

MENDI taberna


Mendi da zure etxea

Maalako Errabala, 4 Tfnoa: 79 20 54 ARRASATE

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiralez
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99



Obra txikiak egiteko Udolari ez zaio ezer ordaindu behar baimenagatik.

Negozioa irekitzeko gutxienez 45.000 PTA ordaindu behar

Iharduerak burutzearen ordaindu beharreko tasen artean, garrantzitsuenak obra-baimenak eta negozioak irekitzeko-baimenak izango lirateke.

Etxebizitzetan egin behar diren obren aurrekontua milioi bat baino txikiagoa izanez gero, Udolari ez zaio ezer ordaindu behar; hortik bost milioitako aurrekontura arte, 5.300 PTA ordaindu behar dira eta hamabost milioitako aurrekontutik gora, 21.200 PTA. Iazko tarifekin alderatuta, igoera %6koa izan da. Udaleko teknikarien esanetan, aurkezten diren obra-aurrekontu gehienak, ez dira milioi batetara iristen.

Negozioak irekitzeagatik, iharduera kaltegarrien espedientearen arabera, ordaindu beharrekoa ondorengoa litzateke: merkataritzan 71.000 *Igoka* espedientearekin eta 45.000 barik, zerbitzuetan 80.000 *Igokarekin* eta 64.000 barik, ostalaritzan 106.000 *Igokarekin* eta 80.000 barik, azkenik industriari *Igokarekin* 132.000 eta barik 106.000 PTA. Iazko prezioekin alderatuz gero, tasa hauen batuz besteko igoera %6,34koa izan da. Kontuan hartu behar da bestalde, iharduera gogaikarri eta kaltegarrien espediente *Igoka* delakoa tramitatzearen, 26.500 PTA ordaindu behar direla.

Zozketen aurkako kanpaina

Kakitzat talde antimilitaristak soldaduzkarako zozketen aurkako kanpaina aurkeztu zuen Gazte Zerbitzuan. Ekintzak aipatzeaz gain, antimilitaristek Aretxabaleta eta Arrasate artean, 35 intsumiso zeudela adierazi zuten, soldaduska egindako 41 kontzientzi eragozle eta 19 emakume objetore. Hamazazpi eta hamazortzian 200 arrasatear zozketatuko dituzte; hala ere, insumisio, objezio, edo libratzeagatik arrasatearren erdia ez ei da soldaduzkara joaten.

Lehergailu abixuz, errepidea moztu

Asteazkenean, 11 etatik 2.30ak arte, Ertzantzak bidea moztu zuen Takolon. Dirudienez, Antzuolako DYAn jasotako dei batek, Arrasateko Renault eta Meca kontzesionarietan lehergailuak jarri zituztela adierazi zuten. Ertzantzaren lehergailuen sailekoek arakatu arte errepidea ez zen berriz zabaldu.

Asteroko eskaintza

Azaroaren 16tik 21era bitartean

%20ko deskontua ANORAK ETA LUMATXEtan

%10ekoa beste EDOZEIN artikulutan

KAIXO: SUPER-IRAGARKIA
naiz eta diru bihurtzen naiz
zure erosketetan, ebaki eta
URIARTE SPORTera eramaten
banauzu.

ERABILI NAZAZU!!

Azaroaren 21era arte balio dut.



Olarte, 6 Tfnoa: 79 27 78
ARRASATE

Uriarte
SPORT

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkun berreziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE



UXARTE

**Kafetegia,
gozotegia**

**Gaeuz irekita!!
JO TA KE!!**

Bañe doktorea, 12
Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65



Auzotarrek diotenez, obrek Gipuzkoa Etorbiderako pasoa itxi diete.

A-20 areako obrak direla eta, auzokideak kexu

Musakolako A-20 izenez ezagutzen den guneko obrak direla eta, Txotxuene etxearen atzekaldean, arazoak daude auzokide, Udala eta obrak egiten ari den Cnes. Brues-en artean. Auzotarrek diotenez, A-20 areako reparzelazioa onartu barik eta PERI-a kontentziosoan sartuta daude, beraz obrak ez ei dira legalak.

Legea alde batera, auzokideek urbanizazio lanei buruzko kexak dituzte. "Area osoa urbanizatzeko, -zioen auzotarretariko batek- 750 milioitako aurrekontua dago; auzotarrok, 70 milioi inguru ordaindu behar ditugula diote. Dirutza hori bost ataritan bizi garen

auzotarren artean ordaindu behar dugu, gehienak jubilatutaak diru-iturririk gabeko jendea beraz. Hori gutxi balitz, obrek Gipuzkoa Etorbidera geneukan pasoa itxi digute, eta orain 40/42 atarietakoak atzetik irteteko izugarrizko buelta eman behar dute. Gainera, euriaren eraginez, obretatik hezetasuna sartu da 40 zenbakiko ezkerreko etxebizitzetara, aipatu barik eraikuntza berririk, zabalera izanda, argitasun handia kendu digula".

Brues-ek eta Udalak auzotarren eskariei ez badie jaramonik egiten, hauek epaitegi-tara joko dute, interdiktoa aurkeztu z.

Ondasun higiezinaren gaineko zerga

Hilaren 20a arte, datorren ostirala, herritar guztiek borondatezko epean Ondasun Higiezinaren Gaineko zerga ordaintzeko aukera izango dute. Aipatutako epean ordaintzen ez dutenek, %20ko gainkarguaz ordaindu beharko dute.

Zabarte berriro gose-greban

Jesus Mari Zabartek, Kaniariar irletan dagoen preso arrasatearrak, aurtengo hirugarren gose-grebari ekin dio, beste sei euskal presorekin batera. Euskal presoek gartzelako bizi-baldintzak hobetzea eskatzen dute. Zabartek aurtengo beste bi gose-greba egin ditu, Pedrotxo Guridirekin batera, 41 eta 39 egunetakoak.

Langilea hil Kobaten

Kobaten lanean ari zela Salvador B. B. 54 urteko arrasatearra hil zen asteazkenean. Dirudienez, erdi-zintzilik zeuden harri batzuk gainera erori zitzaizkion.

HITZALDI-MAHAINGURUA

Euskararen legeak 10 urte.

Zer emaitza izan du legeak? Irakaskuntza, unibertsitatea, komunikabideak, lan arloa...

Monterronen.
Osteguna 19.
Arratsaldeko 7etan.




PARTAIDEAK




Joxe M. Zeberio
(HPIN)



Xabier Kintana
(Hizkuntzalaria)



Joseba Alvarez
(EHE)



Argazkian dantzan eta poz-pezik ikusten dugun bikoteak urrezko ez-taiak ospatuko ditu bihar. Felix Berasaluze eta Carmen Izurrategi dira eta sei seme alaba

dituzte gaur egun. Jakin dugunez, denak Eskoria-tzako elizan bilduko dira bihar ospakizun horretarako. Oso ondo pasa eta urtea askotarako izan dadila!

Pasa den asteazkenean San Martin eguna ospatu zen. Eta urtero bezala, Aramioko patroia denez, herri bazkaria izan zen. Jende ugari bildu zen bertan eta oso giro ona ikusi genuen bertara hurbildu ginenean. Arratsalde partean ere izan ziren beste ospakizun batzuk.

Aste honetan bi ezkontzaren berri dugu. Alde batetik **Jabi Arregi** eta **Esther Areta**, pasa den irailaren 19an ezkondu zirenak. Eta bestetik **Manuel Gamito** eta **Lourdes Bengoa**, pasa den urriaren 10ean Arantzazun ezkondu eta Santo Domingo egon direnak. Egun horiek gogoratu nahiean, gure zorionik beroena bikote bioi.

"EDERTU"
ileapaindegia

San Andres auzoa
Tfnoa: 79 04 28

BLUSAK
OSAGARRIAK
POLTSAK

XAHO

ANGELA UNZUETA

Novecento eskusiban
Paola Frasconi, Liseta Paoletti, Dinastie

Ortiz de Zarate, 14 GASTEIZ

ARRASATE
PRESS

HARPIDETZAK

77 05 65

IZEN PROPIOAK



Muru gainean, argazkian ikusten duzuen jaiotza jarri berri dute. Bertako gurutze azpian ikus daiteke jaiotza txiki hori, kaxa baten sartuta eta haize eta euriarengandik

ondo babestuta. Dirudinez, eta jarri dutenek esan dutenaren arabera, bertan uzteko asmoa dago. Detaile polita!

Kirolzaleok eta txirrindularizaleok jakingo duzue pasa den astebukeraren Marino Lejarretari, txirrindularien mundua utziko duela eta, omaenaldia egin zitzaiola Berrizen. Brindisak egiteko orduan, Maritxu Kajoiko txanpana atera zen mahaira. Honen bidez, modu baten Arrasatearrok ere egon ginen omenandi horretan txanpanarekin. Ordezkaritza egokia da.



JABIER

● **Asier Arrizabalaga**, 21 urteko Aramaiotarra da Gizon probetan kintopekoen mailako Euskadiko txapel-dun berria. Pasa den aste-bukaeran Aramaion izan zen txapelketan lortu zuen txapela Asierrek. Bere anaia Oskarrek aldiz, ez zuen hobetu bere aurreko marka eta ondorioz ez zuen ezer irabazterik lortu.

● **Eskoriatzako Irakasle Eskolako Ikus-Entzun Departamentuak**, hirugarren saria irabazi du Valladolid-eko Diputazioko Kontsumo Zerbitzuarentzat eginiko bideoetan. Bertan Europa osoko lanak aurkeztu dira.

● **Mari Jose Azkarate**, 28 urte, Eskoriatzarra da Monterronen ematen diren marrazki eta pintura ikastaroetan irakasle berria. Arte Ederretan lizentziatua da.

BASABE JATETXEA

Menu eta afariak
Boda eta banketeak

Tfnoa: 79 91 84
ARETXABAleta

TTUKUN

Fotokopiak
Enkuadernazioak
Planoen erreprodukzioa
Offseta

Ferrerias, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 46 62



SAMEGO
GARBIKETAK

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39

ARGIA


egutegia



ARRASATEN SALGAI

- Prentsa saltokiak:
Portaloia, Balanzategi (Biteri)
eta Moreno (Izarra dorrea).
- AED, Hire liburudenda eta
Txitxinpe taberna.

**Egutegi aberats eta politena!
Ez galdu aukera!**



udako
euskal
unibertsitatea

UEUren III. Arrasateko Ihardunaldiak

Azaroak 17, asteartea
Arratsaldeko 6etan
Monterron Kultur etxean

■ EUSKAL HERRIKO AZPIEGITURA METEOROLOGIKOA

Metereologiaren historia labur eta txiki bat egingo da lehendabizi. Ondoren, Euskal herriaren eta Espainiaren egoera aipatuko da bi zatitan banatuta: demokrazia arterainokoa eta demokrazia geroztikoa, Euskal Herriko behategi meteorologikoen sarea eta iragarpenak nola egiten diren ere azalduz.

Hizlaria: **PELLO ZABALA**
Arantzazuko Zentru Meteorologikoaren Arduraduna.

Arrasateko Udaleko Euskara Batzordearen Laguntzaz

Futbito Txapelketa ZALDIBARRREN



Beste ezer baino, dirua nahiago taldeek

Taldeetako ordezkarien bilera burutu zen joan den astelehenean, emaitzak penagarriak: Oraindik 70 talde jokoan eta bilerara, 32 pertsona bakarrik joan ziren, 9 taldeen ordezkapena. Gainontzeko talderek paso egin zuten, eta bildutakoak zertarako bildu? talde bakoitzak txapelketa bukatutakoan, 20.000 PTA

kobratuko dituela erabakitzeko. Jai bat antolatu edo beharra duenari utzi beharrean, Monterronen bildutakoak antolatzaileek lortutako dirua kobratzekotan dira. Antolatzaileek ez dute erabakia onartu eta bilera berri batetarako deia zabaldu dute, ea jende gehiago agertzen den!

ILEAPAINDEGIA

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE



DEBA
GARAIA

MONDRAGON BERGARA ELGOIBAR

Arrasaten, Iturrioz, 23 azpia
Tlfnoa: 77 13 02

Eros dezaket pisu bat hirierdian, lasaia, eguzkitsua, ikusbideekin, 3 logelakin eta trastelekua eta guztiz hornitua, baldin badauzkat 1,5 miloi pezeta eta 45.000 pzta / hilero?

SEGURASKI BAIETZ !

a taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
ARGI IBILI	6	5	1	0	48	13	11
ZULOAK	6	5	1	0	24	11	11
AIZPUN BILA.	6	5	0	1	28	14	10
ARRASATE KIROLAK	6	4	1	1	26	14	9
URMAY BURGER KING	6	3	2	1	25	12	8
SIBILIUS ROVER	6	4	0	2	23	13	8
DANOK LAGUN	6	3	2	1	19	16	8
LOS HEREDIA	6	3	1	2	27	12	7
BETRAYER	6	2	3	1	21	15	7
KAIXO LENIZ	6	3	1	2	24	25	7
BUKANAK	6	3	1	2	20	20	7
ITT	6	2	0	4	22	18	4
WHISKERIA LINDE	6	2	0	4	18	31	4
GARIBAI 5	6	1	0	5	13	25	2
DRAFT	6	1	0	5	12	33	2
DRINK TEAM	6	0	2	4	6	23	2
RESAKAS	6	0	1	5	12	37	1
AMOZKIBAR II	6	0	0	6	6	42	0
GUZTIRA	108	46	16	46	374	374	108

b taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
MIKELOS	6	6	0	0	28	8	12
BIZKORRAK	6	5	1	0	13	5	11
ZIZTI-ZAZTA	6	4	2	0	35	13	10
DIEGO ANTONIO	6	4	1	1	27	15	9
JODO FLORO	6	4	1	1	21	15	9
MOTZ	6	4	0	2	26	31	8
KAKAJAURI	6	2	3	1	15	12	7
LA BANDA	6	3	0	3	20	16	6
ANBOTOSTE	6	3	0	3	16	19	6
ZULUS	6	3	0	3	21	20	6
GATZBAKUAK	6	2	2	2	14	21	6
PUBLICOOP	6	2	1	3	16	25	5
BAYERN PROMESASA	6	1	1	4	11	25	3
TRONKOTEAK	6	0	1	5	14	31	1
LAUTHERBRUNNEN	6	0	1	5	11	27	1
ATERPE KAFETEGIA	6	0	0	6	8	22	0
KAJOI TABERNA	—	—	—	—	—	—	—
FOSFOROS	—	—	—	—	—	—	—
GUZTIRA	96	47	14	47	335	335	96

c taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
NOSKI	6	6	0	0	27	8	12
TRIKITI	6	5	1	0	46	9	11
ADOBE	6	5	0	1	32	8	10
ADELAIDA HAIZEA	6	4	1	1	28	8	9
LASO ARREGI	6	4	0	2	21	15	8
ALPARGATA TURBO	6	3	1	2	26	18	7
NUEVO TABERNA	6	2	2	2	24	22	6
ARRASATE KRIST.	6	3	0	3	20	19	6
GURE LEKU	6	2	2	2	30	30	6
TXOKO TABERNA	6	3	0	3	18	20	6
GANBELAS	6	2	1	3	13	13	5
AUF DEM KOFFER	6	2	1	3	16	21	5
NAVARROS	6	2	1	3	21	25	5
KRISKIBALDA	6	1	2	3	12	21	4
ALLA KUIDAUS	6	1	1	4	11	29	3
SEGUROS ORBITA	6	1	0	5	16	38	2
ATXANTA KE TE...	6	1	0	5	12	44	2
BALEIKE	6	0	1	5	12	37	1
GUZTIRA	108	47	14	47	385	385	108

d taldea	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	Guzt.
SUM. UGARTE	6	5	1	0	38	8	11
FOTO IMAGEN	6	5	0	1	31	13	10
LEINTZ GARAGAR.	6	4	1	1	19	8	9
PEPELUS	6	3	2	1	27	15	8
MONTERREY TAB.	6	4	0	2	30	17	8
LOS DIMY	6	2	3	1	31	17	7
NOTXINGAN FLO.	6	2	3	1	24	18	7
KOKKAS	6	2	3	1	15	12	7
POTROAK LORATEGI	6	2	3	1	20	22	7
SOKOAKOAK	6	3	0	3	22	17	6
SOLANO 7 MARES	6	3	0	3	25	20	6
UGLYS	6	3	0	3	15	18	6
ZOTZ	6	3	0	3	22	33	6
ARTZANKOS UDAL.	6	1	2	3	27	30	4
EZKIÑAKO HONTZAK	6	2	0	4	15	32	4
OLEEE!	6	0	1	5	14	34	1
BAYERN DE LENIZ	6	0	1	5	10	43	1
ILUNA TABERNA	6	0	0	6	10	38	0
GUZTIRA	108	44	20	44	395	395	108



**Iluntz
eta
Iturriotz
tabernak
ARRASATE**

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

**Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80**



**ZARUGALDE
ALBAITARI KLINIKA**

Ordutegia:
10-1.30 eta 4.30-8
Larunbatak: 10-1.30

- Albaitaritza orokorra
- Zirujia
- Txertaketak
- Larrialdiak (24 ordu)

Tfnoa: 79 15 31

Zarugalde, 25
ARRASATE

Zarugalde
kalean...
**BRANKA
taberna**

BELARRIRA



Zenbat halako ez dira ate ondotik edo gainetik joango? Nahia beti bera izaten da, gola egitea, baina ezinezkoa gertatzen da askotan. Hala ere, golak egiteko biderik onena, aukera txiki bat somatzen denean, jaurti ea zorterik dagoen.

◆ **Pasa den igandean,** atzerapen txiki bat jasan zuten Zaldibarren jokatu beharreko partiduak. Izan ere, porteriak errekan aurkitu ziren. Dirudienez, "bromistak" notzuk diren, batzuk behintzat, jakineko da eta antolatzaileek, berriro halakorik gerta ez dadin, dagoeneko jarri dira harremanetan porteria jaurtitzailerekin.

EMAITZAK

A TALDEA

Zuloak 5	Amozkibar II 0
Bukanak 2	Whiskeria Linde 6
Betrayer 6	Garibai-5 1
Danok Lagun 2	Urmay Burger K. 2
Los Heredia 3	Kaixo Leniz 4
Resakas 3	Argi Ibili 6
Aizpun Bila 3	ITT 1
Sibilius Rover 3	Draft 2
Arrasate Kirolak 5	Drink Team 0

C TALDEA

Atxanta ke te... 1	Adobe F. C. 7
Alpargata Turbo 0	Arrasate Krista. 2
Laso Arregi 6	Txoko Taberna 1
Ganbelas 2	Adelaida Haizea 1
Nuevo taberna 8	Alla Kuidaus 0
Trikiti 7	Krskibalda 1
Gure Leku 7	Baleike 4
Navarros 6	Auf Dem Koffer 2
Noski 5	Seguros Orbita 2

B TALDEA

Mikelos 6	Jodo Floro 4
Kakajauri 2	Gatzbakuak 2
Publicoop 5	Motz 7
Aterpe Kafetegia 3	Zizti zazta 6
Diego Antonio 7	Tronkoteak 3
Bayern Promesas 2	La Banda 1
Lautherbrunnen 1	Anbotoste K. T. 6

D TALDEA

Monterrey taberna 2	Leintz Garagar. 3
Foto Imagen 2	Sum. Ind. Ugarte 4
Uglys 3	Iluna taberna 0
Ezkinako Hontzak 2	Zotz 5
Los Dimy 1	Koxkas 1
Bayern de Leintz 2	Pepelus 2
Sokoakoak 2	Potroak Lorategi 3
Oleee! 0	Solano 7 mares 4
Artzankos Udal. 3	Notxingan Flo.t 3

◆ **Aspalditik espero zen,** eta dagoeneko iritsi da argi-artifiziala Zaldibarrera. Aurrerantzean, partiduak arratsaldeko zortzirak arte luzatuko dira; beraz, partidu gehienak Zaldibarren larunbatetan.

◆ **Multzo bakoitzetik,** 8 talde sailkatuko dira hurrengo faserako. Lau multzo berri egin eta final laurdenetarako, talde bakoitzeko 2 onenak sailkatuko dira. Lehen faseari otsailean emango zaio amaiera.

Tripipublic

Kanpatorpea, 2

Tfnoa: 79 31 33 Faxa: 79 88 56 ARRASATE

- Publizitate kanpainak •
- Diseinu grafikoa •
- Artikulu publizitarioa •
- Zuzeneko publizitatea •
- Bideo produkzioa •

ASTEBURU HONETAN

Larunbata 14

Zaldibar

- 08.45 Gure Leku / Nuevo Taberna
- 10.00 Bayern Promesas / Diego Antonio
- 11.00 Baleike / Adelaida Haizea
- 12.00 Notxingan Flores / Iluna Taberna
- 13.00 Ganbelas / Arrasate Kristaldegia
- 14.00 Lorategi Potroak / Zotz
- 15.00 Anbotoste K. T. / Motz
- 16.00 Adobe / Auf Dem Koffer
- 17.00 Sokoakoak / Los Dimy
- 18.00 Alpargata Turbo / Kriskibalda
- 19.00 Arrasate Kirolak / ITT

Iturripe B

- 13.00 Drink Team / Sibilius Rover
- 14.00 Mikelos / Lautherbrunnen
- 15.00 Argi Ibili / Garibai 5
- 16.00 Aterpe Kafetegia / Gatzbakuak
- 17.00 Leniz Garagardotegia / Solano 7 mares

Iturripe B

- 11.00 Seguros Orbita / Txoko taberna
- 12.00 Uglys / Koxkas
- 13.00 Bukanak / Urmay Burger King
- 14.00 Oleee! / Bayern de Leniz
- 15.00 Resakas / Danok Lagun
- 16.00 Jodo Floro / La Banda
- 17.00 Foto Imagen / Pepelus

Igandea 15

Zaldibar

- 08.45 Kakajauri / Tronkoteak
- 10.00 Zuloak / Kaixo Leniz
- 11.00 Noski / Atxanta ke te...
- 12.00 Zulus / Bizkorrak
- 13.00 Aizpun Bila / Los Heredia


Iturripe A

- 09.45 Ezkiñako Hontzak / Sum. Ind. Ugarte
- 11.00 Laso Arregi / Alla Kuidaus
- 12.00 Monterrey taberna / Artzankos Udalaizt

Iturripe B

- 09.45 Draft / Whiskeria Linde
- 11.00 Nabarros / Trikiti
- 12.00 Betrayer / Amozkibar

NON DAGO BALOIA?



Non dago baloia? Badirudi jendea animatzen ari dela eta geroz eta gehiago dira hona ekartzen dizkiguten papertxoak. Maltzurkeriz jokutzen ari gara, eta baloia betik ez dago suposa zitekeen tokian. Errazagoak ere jarriko ditugu, beraz zuek segi etiketatxoak bidaltzen, bateren bat asmatu eta zozketan sartzeko aukera izango duzue eta.



4. astea

NON DAGO BALOIA?

- Erantzuna
- Izena
- Tfnoa

Trikiti

S. L.

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora, 25 ARRASATE Tfnoa: 77 13 20 Faxa: 79 88 56

● *Luis del Carmen*

Hezkuntza erreforman aditu

Irakaskuntzan urte askoan ibili ondoren, Bartzelonako Magisteritza Eskolako irakaslea da, eta heziketa iraunkorreko aktibitatean ere badihardu hainbat erakunde eta komunitetan. Hezibideko irakasleekin ihardunaldi batzuk izan ditu.

— Erreformaren ezarketa berdintsua da komunitate guztietan?


— Nire ustez nahiko diferentzia garrantzitsuak daude, diseinuetan baino gehiago heziketakoa administrazio ezberdinak horiek praktikara eramateko hartzen ari diren neurrietan. Izan ere, erreforma baten planteamenduak garrantzitsuak dira, baina garrantzitsuena gero hori eskolara eraman ahal izateko jartzen diren bitartekoak dira eta horretan ezberdintasun handiak daude. Batzuetan lehen pausoetan geratu dira, beste batzuetan neurriak jartzen ari dira zentruetara begira. Gero diferentzia handia dago praktikan jartzean, eskola publiko eta pribatuaren artean. Publikoetan askotan guzti hori posible izan dadin behar diren oinarriko bal-

dintzak falta izaten dira: irakasle goaren egonkortasuna, zuzendaritzako taldeen funtzionamendu ona, taldeen egonkortasuna, irakasle goaren prestakuntzarako denbora... Desberdintasun nabarmenetan irakasle goari ematen zaizkion laguntzeta daudela esango nuke.

— Kanpotik nola ikusten dira Eskola Publikoaren legea eta antzeko gaiak?

— Esango nuke kanpotik ez dela ikusten. Ni mugitzen naizen sektoreetan behintzat ez dago informazio handirik eta Euskal Herriko hezkuntza sistemak dituen ezaugarri bereziak ere ez dira ezagutzen. Informazio hutsunea dagoela esango nuke, eta beste leku batzuetako egoeren eskema erabiltzen da eta hori ezin da egin, badaude eta ezaugarri bereiztaile batzuk; eskola publikoan irakasle go soberakin garrantzitsu bat egotea, eskolan ixten egotea, hizkuntz-planteamenduaren gaineko arazoak etb, hemengo gai bereziak dira. Beraz, erreferentzia puntuak eta gai honi buruzko ezagupena falta direla uste dut.

— Irakasle goaren aldetik



nolako harrera izan du errefor- mak?

— Planteamendu mailan, ez du ikusi irakasle goak planteamenduak kuestionatzen dituenik. Baina nola irakatsi eta horrelako puntu- gainean, laguntzak behar direla planteatzen dute, orain arte era batera lan egin bada eta era berriak sartzeko asmoa badago, hori prestatu beharra dago eta. Bestalde, klaseak prestatzeko denbora gehiago eskatzen da. Gai hauetan ez du administrazio batek ere erronka handiegirik egin. Administrazio denak hasi dira planteamendu berriekin oso progresista direla, eta muga askorekin gabiltza, are gehiago ekonomikoki krisialdiarekin bat egiten duelako. Horixe da behar den adinako babes instrumenta- lik gabe egiten diren errefor- men arazoa.

— Eta erreformaren emait- zen baloraziorik egiten da?

— Gai konplexua da. Ad- ministrazioek arrazoi poli- tikoengatik egiten dituzten erreformak, logikoa denez, horretarako daude eta alder- diak gobernuetan. Baina ba- tzutan intentzio politiko hori ez da bat etortzen orientazio profesional batekin eta horren ondorioz, ahaztu egiten da balorazioa eta jarraipena egi- tea. Horrelako erreforma bat ez dago hamar urte baino le- hen ebaluatzerik eta inongo alderdik ez ditu hamar urtetara begira neurririk hartzen, hauteskundeak tarteko izaten direla eta. Hemen, erabaki politikoak hartzen dituztenak eurak dira jarraipena eta ba- lorazioa egiten duten tek- nikoak eta horrek bi arazo ditu: Gobernuko alderdiak aldatzen direnean prozesuak eten egiten dira eta gainera, neurri politikoak bultzatzeko gai diren pertsonak ez dira beti profesionalki prestatuta izaten. Horregatik gai hauek ahaztu egiten dira eta beste gobernu bat iritsi arte ez zaie berriz ekiten.

● **“Erreformetan, intentzio politikoa orientazio profesionalarekin bat ez badator, proiektuak eten egiten dira”**



Astero kilometro asko egiten ditu Kepak. Kamioiaren egoera ona zaindu egin behar izaten du.

Kepa Otxoa

Bolanteari helduta

Rosa Mondragon

Kepak txikitatik izan du kamioiarekiko zaletasuna. Aita kamioilaria zuen eta 14 urte zituela bere ametsa errealitate bihurtu zen; bolantean jarri eta Mirandaraino eramane zuen kamioia. Gaur egun Europa guztia zeharkatzen du bere kamioiaz, igande gauean irten eta ostiral edo larunbata arte. Bestalde, baldintzak ez dira egokienak eta bere kontura lan egiten duten kamioilariak gero eta traba gehiago dituzte. Ora in hilabete batzuk greba burutu zuten.

KARGARIK TXARRENA

Kamioiaren traktorea, hau da kamioiaren alde mekanikoa Keparena da eta atzean eramaten duen "gabarra", karga ematen dion empresarena. Edozein motatako karga garraiatu izan du: papera, kristala, burdina... "Alemaniatik, Madrilan fabrikaturiko burdina ekarri nuen eta beste behin billarreko mahaiak ere ekarri nituen". Karga onena 25 tonelada baino gutxiago duena da eta denen artean burdina da onena, kamioiaren zoruan joaten delako ondo lotu ezker, mugitu ere ez delako egiten. Txarrena, aldiz, edozein motatako likidoak, mugimenduagatik kontu handia izan behar delako.



ure kontura lan egiten dugun garraiolariok etorkizun iluna dugu. Enpresek erraztasun handiak dituzte.

KONPENTSAZIORIK EZ


Kamioian sartzen diren ordu guztiak ezin dira ordaindu. Takometroak eta legeak agintzen duenaren arabera, lau ordu gidatu ondoren ordubetez gelditu beharra dago. Diru aldetik ez da konpentsazio berezirik izaten. "Konpentsazio onena lagun onak egitea da". Irabazi berdin xamar egiten da Estatu barruan zein atzerrian ibili, baina atzerrian orduak hobeto zaintzen dira. Estatuan zerbitzu guztiak urgente jarri dira, hau da, gauez egiten dira bidaia gehienak eta askotan abiadura zaindu gabe. "Hemengo lana hobea izaten da, baina beti presaka ibiltzeko, ez du merezi".

EMISORAREN LAGUNTASUNA

Gero eta kamioilari gehiago du emisora kamioian. Jaikitzen direnean piztu eta gauerarte martxan izaten dute nahiz eta hitz egiteko erabili ez. Askotan istripuen berri jakiteko, eguraldia ezagutzeko edo norabidea ziurtatzeko balioak izan daitezke bertatik entzuten diren elkarrizketak eta komentarioak. "Emisora barik ezin da bidaia imaginatu. Irratia ere entzuten dugu baina ez da gauza bera izaten, emisoratik kamioilarien informazioa jasotzen dugu eta". Gauak etxean pasatzen ohituta gaudenoi, latzak iruditzen zaizkigu kamioi itxi baten pasa daitezkeenak. Hala ere, kamioilari batentzat gauza normalena da. "Berez, gautxoria naiz eta ohituta nago ordu gutxi lo egitera". Kepak, liburu eta antzerakoak eramaten ditu kamioian, izan ere, bere bigarren etxea balitz bezala, antolatzen du kamioian egiten duen bizitza.

DAGOEN DROGARIK TXARRENA

Betiko kamioilariarentzat, Keparentzat, kamioia droga bat da, dagoen drogarik txarrena. "Badakit egunen baten



Astea kamioian pasatzen duenez, komodidade guztiak ditu bertan.

utzi egin beharko dudala baina ez dakit noiz helduko den eguna". Etorkizunean, gauzak gaur dauden bezala, txarrera doaz, baina hala ere Kepak ahal duen neurrian jarraitzea espero du. *"Berez nekatuta nago lan honetaz, baina, ez dakit noiz esango dudan bihar bertan izango da azken eguna"*.

BIDAI BAKOITZA, ABENTURA BAT

Bidai bakoitzean, nahiz eta ibilbide berdinekoa izan, gauza desberdinak pasatzen dira, berak dioen bezala, "Bidai bakoitza abentura bat da". Eguraldia, errepidearen egoera edo laguntasuna desberdina izan daiteke.

Bisitatu dituen herrialde guztietatik Suiza da gehien gustatu zaiona. "Oso lege estuak dituzte baina euren bizimodura moldatuz, dagoen herrialde politena eta jatorrena da". Bertan goizeko betatik gaueko 10ak arte bakarrik ibil daitezke kamioiak. Euskadiko paisaiarekin konpara-

tzen du, "Euskadi bezalakoa da, baina askoz ere garbia-go".

ETORKIZUN ILUNA

Autonomoentzat kamioilari etorkizuna oso ilun ikusten du Kepak. Kamioiak gastu asko eragiten ditu: erostea bera eta mantenimentuko beste gastuak. Guzti hauek ordaintzeko enpresa handiei ematen zaizkie

erraztasun handienak. Autonomoek, aldiz, kamioia erosteko zailtasunak izateaz gain, merkantziak lortzeko ere izaten dituzte askotan. 1990. eko grebaren ondoren gobernuak agindutakoa bete ez dutenez, grebara jotzera erabaki zuten pasa den irailean. "Arrazoiak baditugu, zergen bidez gasoilaren prezioa igo egin dute, garraiatu ahal izateko baime-na eta zertifikatu berriak es-


katzen dizkigute. Gainera, garraio sektoreari begira aurrez zituzten aurrekontuak murriztu egin dira eta gainera aurreko greban agindutakoa eta esandakoa ez dute bete. Pisuzko arrazoiak beraz". Azken finean, lana beharrezko baldintzetan egitea da esijitzen dutena. 15 egun greban egon ondoren, gauza gutxi lortu eta lanean jarraitzea erabaki zuten.

Bitxikeriak

- "Niretzat kamioi onena MANa da".
- "Gendarme frantsesak eskupekoekin eros daitezke. Isuna jarri arren, eskupekoa eman eta laster apurtuko dute".
- "Suizako autopistatik ibiltzeko kuota bat ordainduz, herrialde guztia zeharka daiteke, ez baitago peage bakoitzean ordaindu beharrik".
- "Cognac botila batekin, jaun eta jabe zara Alemanian. Berandu bada eta kamioia husteko arazoak badituz, Cognac botila bat erakutsiz, nire aginduetara jartzen dira".

- "Beste herrialdeetako jendearekin uler-tzeko frantsesez egiten dut eta gainerakoa keinuz edo ahal dudana bezala".
- "Sevilan eta andaluziarrek kamioian eramaten dute janaria. Sekula ez dute jatetxe-tan bazkaltzen".
- "Gendarme frantsesek morotzat hartzen gaituzte espainar matrikula daramagun guztiok, legea noiz hautsiko zain".

• "Atzerriko kamiolariak, kamioi ona izateari oso inportatzia handia ematen diote, eta ez hainbeste lan baldintzei".





Hamaika lagun ez, baina gainontzekoak iritsi ziren Boulebarreko helmugara


Behobia-Donostia, 44 arrasatearrek bukatu

Guztira 55 arrasatearrek hartu zuten parte joan den asteko Behobia-Donostia lasterketan, horietatik 44 iritsi ziren helmugara, honako hauek eta ondorengo denboran:

- Xabier Mentxaka 1.07.49
- Jose Luis Arroiabe ... 1.18.26
- Jose Luis Ugalde 1.18.58
- Jose Mari Barrena 1.25.07
- Ramon Goñi 1.26.07
- Josu Roteta 1.27.27
- Xabier Zubiaga 1.27.49
- J. Ramon Iñurritegi ... 1.28.37
- Jesus M. Barrena 1.28.42
- Agustin Uribarren 1.28.59
- Iñaki Jauregi 1.30.34
- Jose Mari Guridi 1.30.34
- Faustino Martinez 1.31.09

- Xabier Mendialdua ... 1.31.10
- Juan Pablo Balerdi ... 1.32.21
- M^a Pilar Valdezate 1.32.30
- Crispin Valdezate 1.32.32
- J. Antonio Talledo 1.34.35
- Mikel Irizar 1.34.38
- Pedro Cruz 1.35.48
- Juan Luis Murgia 1.36.38
- Xabier Arkauz 1.38.03
- Juan M^a Amilburu 1.39.14
- Emilio Lizaranzu 1.39.59

- Klaudio Mertxan 1.40.26
- Jose M^a Larrañaga ... 1.40.29
- Jose Luis Urzelai 1.40.38
- Jokin Mujika 1.41.54
- Daniel Talledo 1.42.27
- Manuel Silvar 1.42.36
- Maria Jose Gil 1.43.03
- I. Arizmendiarieta 1.44.01
- Inaxio Beltran 1.44.27
- Josu Albistur 1.44.57
- J Antonio Moraleja ... 1.45.02
- Aitor Orobengoa 1.47.01
- Eukeni Olabarrieta ... 1.47.36
- Jon Uzquidun 1.47.53
- J. Barrutiabengoa 1.49.29
- Iñaki Iraola 1.51.55
- Pancraccio Cruz 1.53.18
- Miren Arizmendiarieta 2.00.48
- Jokin Iturrioz 2.00.50
- Juan Jose Primoy ... 2.01.16.



LABURRAK

Futbito txapelketa emakumeentzat

Santamainako emakumezkoen futbito txapelketan parte hartu nahi dutenek, hilaren 18a arte izena emateko aukera dute. Izen ematea astelehenerik ostegunera arte egin ahal izango da, auzoko alkatetzan, arratsaldeko 5etatik 8etara. Hilaren 18an bilera egingo da talde guztietako ordezkariekin, arratsaldeko 7etan.


Galan Estatuko boxeotxapelketara

Hilaren 28an Estatuko Superarinen txapela jokoan jarriko da Madrilen, eta Santi Galan arrasatearrek izango du txapel hori eskuratzeko aukera. Aipatutako egunean Galanek Jose Manuel Berdonceren aurka burukatuko du; irabaziz gero, txapela berarentzat. Ez da erraza izango eta txapelketa Madrilin jokatzek eragin handia izan dezake. Galanen promotoreek ahalegin handia egin zuten txapelketa Euskadira ekarri ahal izateko, baina madrildarrek diru gehiago ordaindu dute eta azkenean han egingo da.

Arrasate Eskubaloi geroz eta hobeto

Eskubaloi taldeek ez zuten denboraldi hasiera onik izan, baina poliki-poliki martxan jarri direla eta azkenengo ihardunaldietan emaitzak hobetzen ari dira. Joan den astean, lau taldeetatik hiruk irabazi egin zuten eta aurrekoan ere bai; ea hurrengoan plenoa lortzen den, lautik lauk.

VE ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06



EGVZKIGRAF
Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia

Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

PENALTIAK

● **Bergarako Waterpolo taldeak seguruen Arrasaten jokatuko zuela adierazi genuen, igeriketa federakuntzak ere halaxe ziurtatu bait zigen, baina azkenean bergararrak Legazpiara joango dira. Dirudenez, ez da akordioarik izan Udalarekin igerilekuaren alokairu kontuan.**

● **Mondra eta Zallaren arteko partiduan, zuzendaritzak eskaintza berezia egin nahi izan zien, astero-astero urdaiazpikoaren zozketa erosiz, klub-aren ekonomiari lagundu nahi izaten diotenei. Urdaiazpikoaren zozketarako boletoak erosi zituen bakoitzari, klub-eko insignia oparitu zitzaion. Guztira 234 insignia banatu ziren.**



Brues-ek liderrari irabazi

Cnes. Brues taldeak aurrerapauso galanta eman zuen joan den asteburuan, sailkapeneko liderrari 5 eta 3ko emaitzaz irabazi ondoren. Orain arrasatearrak sailkapeneko laugarren postuan daude, eta azkenaldean erakusten ari diren jokua kontuan izanda, normalena aurrera egitea izango litzateke.

Lehen zatiak 6-9 irabazten, eta bukaeran 14-31, nola daiteke?

Lehen zatian gure pareko jendearekin jokatu zuten, baina bigarreneko beteranoak atera zituzten eta nire ustez hortxe galdu genuen, bestela indarrean ez ziren gu baino gehiago.



IBAN AGIRREURRETA, Arrasate Rugby taldeko jokalaria.

EMAITZAK

Pilota

Gipuzkoako liga:
Alebinak: Soraluze 18 - Arrasate 11
Infantilak: Soraluze 7 - Arrasate 18
Kadeteak: Soraluze 18 - Arrasate 7
Jubenilak: Eskuz-esku: Bergara 6 - Arrasate 18
Bikoteka: Bergara 5 - Arrasate 22
Nagusiak: Eskuz-esku: Azpeitia 18 - Arrasate 10
Bikoteka: Azpeitia 13 - Arrasate 22
Paletaz: Ordizia 35 - Arrasate 17
Pala motzez: Ordizia 37 - Arrasate 40
Hurrengo partiduak:
Urreak, Iturripen larunbatean 11etan Eskoriatzaren aurka.
Palakoak, Aretxabaletan larunbat goizean.

Eskubaloia

Kadeteak: Arrasate 7 - Bizkor 21
Jubenilak: Ordizia 13 - Arrasate 14
Juniorrak: Arrasate 22 - Hernani 14
Seniorrak: Arrasate 31 - Bortzirak 25
Hurrengo partiduak
Kadeteak: Iturripen, larunbata 16.30, Aloña Mendiren aurka.
Jubenilak: Iturripen, larunbata 18.00, Urolaren aurka.
Seniorrak: Igandea, 12.15 Oñatin.

Rugbya

Jubenilak: Arrasate 16 - Hernani 10
Nagusiak: Elorrio 31 - Arrasate 14

Futbola

3. maila: Mondra 1 - Zalla 1
Preferentea: Aurrera 9 - San Andres 2
Emakumezkoak: Urretxu 1 - Arrasate 3
Jubenilak:
Ohorezko liga, Lazkao 1 - Arrasate 0
Lehen maila, Lakua O32 1 - San Andres 1
Bigarren maila, Arrasate 7 - UDA 0
Kadeteak:
Lehen maila, Arrasate 3 - Aurrera 1
Bigarren maila, Arrasate 5 - Urola 0
Haurrak:
Arrasate 6 - Aloña 0
Arrasate 0 - Bergara 0
Hurrengo partiduak
3. maila: Mondra - Aurrera, igandea 15.30.
Emakumezkoak: Mondra - Anaitasuna, igandea 10.00.
Jubenilak:
Ohorezko liga, Arrasate - Sto Tomas Lizeoa, larunbata 15.30.
Lehen maila, San Andres - Vitoria, larunbata 11.00.

Kadeteak:
Bigarren maila, Arrasate - Soraluze, larunbata 09.15.
Haurrak:
UDA - Arrasate, Ibarren, larunbata 11.30.
UDA - Arrasate, Ibarren, igandea 11.00.

Saskibaloia

Seniorrak: Arrasate 79 - Eskoriatza 69
Jubenilak: Gizonezkoak, Arrasate A 67 - Juven 18
Emakumezkoak, Andraitz 27 - Arrasate A 65
Kadeteak: Gizonezkoak: Arrasate A 46 - Askatuak 77
Zahor A 74 - Arrasate B 71
Emakumezkoak: Arrasate A 35 - Ondartza 67
Hurrengo partiduak
20F Arrasate-Lestonnac (Logroño)
Larunbata, 18.00- Musakolan.
Jubenilak gizonezkoak: Arrasate B-Zahor. Larunbatean, 16.00. Donostian.
Jubenilak emakumeak: Arrasate - Juven
Igandea, 12.00. Musakolan.
Kadeteak gizonezkoak: Arrasate B -Urmek. Larunbatean, 12.00 Musakolan.
Kadeteak emakumeak: Arrasate B -Eskoriatza. Larunbatean, 16.00. San Viatorren.



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA
Tfnoa: 76 40 50

Gabriel Elorriaga Dka.

**Loditasuna
Zelulitia
Zelulolipolisiaren
tratamendua**

Santa Cruz, 24-1ª (1ª C eskailera)
ARETXABALETA Tfnoa: 79 13 54

Gripea

Orokorrean ardurako ez den gaisotasuna da. Baina nahiz eta gaisotasun arina izan, osasun publikorako arazo bihurtzen da:

—Alde batetik, izurrite handiak sortzen dituen gaisotasun bakarra delako


—beste aldetik, ekonomian dituen eraginengatik, hau da, absentismo handia sortzen duelako.

Gripea sortzen duten birusak hiru eratakoak dira: A, B eta C. A motakoa da kaltegarriena, izurrite handienak sortzen dituena. Gripea eragiten duten birus hauek erabat aldakorrek dira, eta horregatik hain zuzen, urte batean hartutako txertoak ez du hurrengorako balio.

Arnasa hartzean sortzen da barruan gripearen birusa. Arnasa hartzeko mukosen zeluletan kokatzen da eta handik gorputz guztira hedatzen da.

Ze sintoma eragiten ditu?

Gripeak astindu gogorra ematen du. Gorputz osoa mi-



nez edukitzen du, burukomina, hotzikara, 39-40 gradutarainoko kalentura, bizkarrezur, lepo eta giltzurrintako mina eta abar. Nekea egundakoa izaten da, eta ez da jateko eta ezertarako gogorik eta indarrik edukitzen. Gaisoa doministikuka, mukia dariola eta eztulka arituko da. Ez-tarria gorritu egiten da eta jateak min ematen du. Hiru

edo lau egunen buruan kalenturak behera egiten du.

Zein osabide dago?

Lehenbizi esan behar da, tratamendu sintomatikoa dela. Hau da, ohean egon behar izaten da, galdutako indarrak berreskuratzen, analgesikoak (aspirina, paracetamola) eta likidoak hartu behar izaten dira. Antibiotikoak ez dira

beharrezkoak, konplikazioetan izan ezik.

Bukatzeko, aipatu behar da gripea oso erraz zabaltzen dela, batzuek indar gehago dute gripearri aurre egiteko beste batzuek baino, eta hildakorik ere izaten da. Horregatik, kasu batzuetako txertatzea komeni da.

KARMELO ETXEBERRIA
MEDIKUA



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.


Larazaintzako mantenimendua ora har.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.





Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

ZATOZ ETA SONY BAT BAINO HOBEA DEN ZERBAIT ESKURATUKO DUZU: BI



►► Orain, *Jose Aranzabal* era etorri eta Sony bat erosten baduzu, beste bat eramango duzu opari.

►► Ez utzi pasatzen aukera bikain hau eta zatoz azaroaren 30a baino lehen. ►► Badakizu zer opari daukazu, Sony bat baino hobea: BI.►►



SONY
BANATZAILE
OFIZIALA
1992

Jose Aranzabal

ITURRIOTZ, 15 Tfnoa: 79 15 16 ARRASATE

Doke jokuaren jatorria

Pedro Velez de Gevara, bere anaia Iñigok ordezkatu zuen Oñatiko Jauntxo gisa, eta bezala deserriratu izan zen 1448ko Arrasateko bataila eta erreketaren ondorioz; arazo horren zauriak irekita jarraitzen zuen eta sekulako mendekuak bizi zituzten. Konkordia baten bidez liskarri amaiera ematea erabaki zuten.

Horretarako, 1461ko apirilaren 26an Oñatiko herriak, plazan bildurik, Santxo Garzia de Garibai (Garibai etxeko jauna), Juan Beltran de Murgia (Murgiatarren etxekoa) eta beste lau jaun gehiagori boterea eman ziten. Mondragoetarrek, euren apoderatuei eman zien egun batzuk lehenago, Zaldibarko zelaian bildurik, eta beste hainbeste bailarako eta kanpoko beste herri batzuetakoek ere.

Iñigo Gevara buru zutela Aretxabaletan bildurik, erreketak, heriotz eta lapurretengatik barkamena eman zioten elkarri maiatzaren leian. Oñati eta Arrasateko artxibuetan ageri denez, 1470eko azaroaren 22an sinatu zen barkamen-agiria.

Arrasatek Zaldibarreko guztia erosi zion Iñigo Guevarari: errota, burdinola, torrearen aztarnak 300.000 marabediren truke.



Baina ez zen kontutan izan 1451n hermandaderari beste kopuru bat ordaindua ziola eta Juan II eta Enrike IVak egiaztatu zutela erosketa hori.

Oñatiko kontearen jabeagoak Mondragoeko harresietarako iristen ziren. Hala ere, kontea urtero etorri ohi zen Zalgibarreko zelaiko belarra ebakitzera, bere jabeagokoa zela argi gera zedin. Mondragoetarrek ez zuten begi onez ikusten jokabide hori. Horrela, Zaldibar Mondragoeko hiribilduak erosi eta gero, Udaltzatza osoa, karguaz jabetzean eta

parrokiako ordezkarian, tanborrero eta herri osoaren laguntzaz Zalgibarreko zelaia joaten ziren. Leku hartan alkateak belar sail bat ebaki eta lore sorta bat jartzen zuen, jabeago seinale. Ohitura hori XX. mendearen hasiera aldera galdu da.

Herritarrek, auziari behin betiko amaiera emateko asmoz, urteko egunik sagaratuenean, ostiral santuz, kontearekin dokean jokatzearabaki zuten. Mondragoetarrek irabazi zuten eta Zaldibar behin betirako Mondragoeko jabetza bihurtu zen.

SUTONDOAN

KAXINTO ETA NARTZO (II)

*H*onetan, hurbildu ziztaien gizon bat, oso xeibre jantzita txapelpean kokortxo bi nabaritzen zitzaizkiola. Galdetu zieten gizon honek ea zertan ari ziren. — Ez al gaituzu ikusten, jokoan ari gara? — erantzun zioten, parre algaratxo batekin lagunduta.

— Eta honeraino kartetan egitearren bakarrik etorri al zarete?

— Ez, baita bide batez ardiak zaintzera ere.

— Eta non dituzue ardiak?

— Aran-Erdiko paatxetan.

— Ez al dituzue kendu behar?

— Beste leku baten hobeto ibiliko al dira, bada?...

— Eskolara eta joaten al zarete?

— Bai, baina ez gure gustora.

— Maixua gaiztoa, ala?

— Gaiztoa ez, baina bai goaigarria.

— Zuek neretzako modukoak zarete eta zuen gogo eta anima neure esku utziko bazenidate, nik gauza harrigarriak, doan eta batere nekatu gabe erakutsiko nizkizueke.

Konformatu ziren gure mutilok, eta txapelpeko kokordunak (Madaripeko Mikolas deabru nagusia berbera baitzen) Harrobi Zaharreko hartzulora eraman zituen. Han ezagutu zituzten Inpernuko Totonio, Inpernuko Patxiko, Martin Goringo, Peru Kaxin eta abar eta abar, beste euren antzeko mila eta gehiago ikasle eta irakasle bezala, denok gorritz jantzita, argi gorri baten azpian inpernuko mixio lanak ikasten.

ARREGI TAR TIBURTZIO

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

mokasin

Zapatak eta osagarriak
IREKITZEA:
LARUNBATA
HILAK 31.

Kontzeziño, 6
Tfnoa: 76 06 78
ARRASATE

aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK

Salvatierrako larrukiak
60km.tako beherapenarekin.

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



B baten ostean ateratakoa da, 1934koa. Meza parrokian eta ondoren zerbait jatera joan ziren, gaur egun Bengoa taberna dagoen lekura, Bar Hilarion izenekora. Argazkikook, juntako arduradunak, zutik ezkerretik: **Sabin Garai**, Elkarteko diruzaina, Zeleta baserrikoa eta gaur egun bizi den bakarra, **Nikolas Garai**, aurrekoaren aita, **Frantzisko Uribe**, Aramaixoko **Elexpuru**, Meatzerrekako beste bat, **Bixente Barrutia** eta **Jabier Zelaiaundi**, “**Jabier Antoña**” izenez, ezagunagoak, idazkaria.

Eserita, ezkerretik, **Felipe Zubia**, **Manuel Gallas-**

tegi, Lehendakaria, eta **Joxe Ezkurra**.

1932-33an izan ei zen antolaketa, eta 34an martxan jartzea, baina Gerra Zibilarekin bertan behera geratu zen dena. Sorrerako helburua, elkar hartu eta salmentarako prezioak jartzea izan zen, eta horrekin batera, pentsua eta antzekoak erosi behar zirenerako denen artean egitea.

“Orduko gure ardura baserria zen eta kitto, bestelako politika kontuetan sartu barik”. Lokala ELAk uzten zien, Batzokia zegoen etxean bertan, Resusta kalean, hitzaldiak ere antolatzen ziren, Donostia eta Tolosatik hizlariak ekarrita.

Mondragoeko baserritar denak ziren bazkide, eta hilean 15 PTAko kuota jarri zen, gasturik zegoenean haiek ordaintzeko adina. Komertzializazio hasitakoan ehuneko bat kargatzeko asmoa ere bazegoen.

Diputazioarekin ere izaten ziren harremanak, eskabideak egiteko. Baserriak berritzeko, argindarra eramateko... eta logelak kortatik bereiztegitik subentzio handiagoa ematen zen arren, 3.000-5.000 PTA ingurukoa izaten zen. Esnetako behiak, belar motak eta ekartzen hasi ziren garai haietan, eta baserriko mutikoak Fraisoro granjara ere joaten ziren ikastera.



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

EPELDE

argazki denda

Iturriotz, 24
ARRASATE
TFNOA: 79 19 71

BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak
Makailoa, kroketak eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) ARRASATE Tfnoa: 79 93 07

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73
- **Etxebizitza berria salgai Zarugalden.** Tfnoa: (945) 25 89 03.
- **Eskoriatzan etxebizitza batean logela bat alokatzen da.** Dei egin asteburutan 64 34 14 tfnora.
- **Pisua osatzeko pertsona bat behar da Arrasaten,** dei egin goizez 79 11 19 tfnora.
- **Aretxabaletan garajea salgai Murubide plazan.** Tfnoa: 79 29 19.
- **Gutziz jantzita dagoen ileapaindegia salgai.** Tfnoa: 79 67 12.
- **Pisua osatzeko pertsona behar da Erguinen.** Tfnoa: 79 71 16.

Lana

- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- **Ingeleseko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.

- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **Furgonetadun mutila lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 04 87. Arratsaldetan.
- **Emakume euskalduna orduka etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 73.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 71 05. Miren.
- **Bi neska gertu gaude etxeak, atarteak edo bulegoak garbitzeko.** Tfnoak: 79 82 18 Mari Jose edo 76 06 79 Maribi.
- **30 urteko emakumea etxeko lanak egiteko, umeak zaintzeko edo edozein lan egiteko gertu.** Tfnoa: 77 06 92.
- **Alemanahutsetik hasita ikasi nahi nuke.** Norbait erakusteko prest balego, deitu dezala ilunkaratan 79 41 94 tfnora. Miriam.
- **Klase partikularrak ematen dira urte osoan.** Talde txikiak. Pertsonal espezializatuak. Dei egin 5etatik 7etara 79 93 03 tfnora.
- **Andra bat behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko.** Dei egin 20.30etatik aurrera 79 15 19 tfnora.
- **Esperientziadun neska pertsona nagusiak** edo umeak zainduko lituzke. Tfnoa: 79 72 92.

Salerosketak

- **Corsa Swing 1.4. SS-AL salgai.** 9 hilabete ditu eta 7.000 Km bakarrik. Oso oso ondo dago. Tfnoa: (945) 22 69 26.
- **Amtrud PC 1.512 markako ordenadorea salgai** 40.000 PTAtan. Ezaugarriak: 8086 mikroa, CGA tarjeta, zuri-beltzeko monitorea, bi diske-tera, 512 K-ko memoria. Tfnoa: 79 58 82.
- **Salgai:** karameluentzako 10 pote handi, izozkien-tzako kamara eta estreinatuta barik dagoen labe bat (Salvat markakoa). Tfnoak: 77 00 91 eta 79 23 58.
- **Citröen AX salgai.** SS-AG. Dei egin 79 82 10 edo gauzez 76 35 50 tfnora.
- **Zibro Caming RCA-66 berogailu japoniarra salgai.** 45.000 PTA. Tfnoa: 79 97 87.
- **Cega Master System kontsolako bi joku salgai** 10.000 PTAtan. Tfnoa: 79 82 13. Aritz.

Denetarik

- **Urrezko koilarra galdu nuen Kanposantutik Abaroarako bidean.** Topatu baduzu mese-dez dei egin 79 44 51 tfnora.
- **Neska batzuk Aretxabaletan buzoneoa** edo antzeko zerbait egiteko prest. Tfnoa: 79 04 94. Nagore.

Aste Gazte

Arrasateko antimilitaristak

• Azaroaren 20ra arte luzatuko da talde honek antolatutako hamabostaldi antimilitarista. Egitarauaren barruan: erakusketak, hitzaldiak, bideo emanaldiak, manifestazioa (azaroak 13an) eta rock-jaialdia (azaroak 20)

Bekak

• Ararteko Erakundeak lankidetzat beka 2 deitu du,

lizentziatuei zuzenduak. Giza-eskubideen babesaren eremuan trebatu eta ikertzeko. Epea: azaroak 21.

• Gubernuko Bozerama-le-Ministeritzak 4 beka deitu ditu, Dokumentazio Tratamenduan trebatzeko. Eskatzaileak: hizkuntz ezagupideak dituzten Informazio Zientziak, politikak, Soziologia, Historia edo Filologia Hispaniarrean lizentziatuak. Epea: azaroak 23.

• Eusko Jaurilaritzako

Hirigintza Sailak 11 beka deitu ditu, goi mailako tituludunei zuzenduak. Lurralde eta hirigintza antolamendu arloan trebatu eta ikertzeko. Epea: azaroak 22.

Lehiaketak

• Ikatza Diapositiba-Lehiaketa. Gaiak: a) mendia, b) librea. Epea: azaroak 24.

• Gizarte Ekonomiaren Eredua Euskal Autonomi Elkartearen sustatzeko Ideien IV. Lehiaketa. Epea: azaroak 29.

• Euskadi gaztea II. Maketa-Lehiaketa. Euskal Herriko pop-rock bakarlariei zuzendua. Epea: azaroak 30.

“Soldaduzka egiteko gazte jendeak daukan arrazoi bakarra beldurra da. Joera honekin jarraitzen bada, sodaduzka desagertuko da, beldurra bera ere desagertzen ari baita”.

R. SAENZ DE ROZAS (KEM-KO'ABOKATUA)

Informazio gehiago: GAZTE ZERBITZUA Tfnoa: 77 00 65

ZER NAHIAGO?

M^a Teresa Gallastegi Meneta tabernakoa



- **Frantsesa ala ingelesa?** Ikastekotan ingelesa aukeratuko nuke.
- **Emakumea diskriminatua dago gaur egun?** Lehen baino gutxiago.
- **Zure hobyak?** Eskulanak egitea.
- **Azazkalak motzak ala luzeak?** Beti motz eramaten ditut.
- **Ze zenbakiko zapatak erabiltzen dituzu?** Normalean 37a.
- **Koktelak egiten badakizu?** Ez, onak ez behintzat.
- **Tabako usaina gustatzen zaizu?** Tabernan egoten ohitu egin naiz.
- **Antzerkia gustatzen?** Bai, baina zinea gehiago.
- **Pastekin zer edango zenuke?** Ardo goxoa.
- **Ur botilak asko saltzen dira?** Gero eta gehiago.
- **Loreak botatzea ala entzutea?** Adarra jotzeko esatea, eta bestela entzutea nahiago dut.
- **Diska ala kaseta?** Diskoa.
- **Takorik esaten dituzu?** Esan behar direnean, bai.
- **Zientzia fikzioko pelikulak gustoko?** Ez.
- **Hizkuntza bat ikasteko metodo bat?** Hitz egiten den tokian praktikatzea.
- **Egunkaria egunero irakurtzen duzu?** Bai, asko edo gutxi baina egunero.
- **Siestarik egiten duzu?** Ez, ez dut ohiturarik.
- **Letxe txarra duzu?** Bai, nahiko txarra.
- **Zer ikasiko zenuke?** Eskulanetan edozer gauza.
- **Fraka bakeroak ala telazkoak?** Bakeroak.
- **Noizbait izan duzu kotxe istripurik?** Ez, zorionez ez.
- **Zenbaki bat?** Beti gustatu izan zait 15a.

BERTSOAK

GURE KIROLEN EGOERA

1
Saskibaloia une honetan omen dihoa gainbera. Albiste hauxe iritxia da nere belarri ertzero. Itxura denez kirol danentzat ez da berdina aukera dirulaguntza omen dihoa pilota ta futbolera.

2
Egia bada ez dut kupirik nere eritzia emateko. Erabaki hau hartu dutenak ez dute jokatu tinko, pilota pixkat berezi leike geure kirola dalako baina berdina izan dadila beste kirol danentzako.

3
Gaztea kirolak atera leike arrisku txar askotatik kirolerako afana badu ez du hartuko biziorik lagun deiogun gazteriarri zuzentzen bide hortatik porreroak izan ez ditzagun kirolarien partetik.

MAXIMO LETONA

FAGOR

TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA



DAMKART

Estetika eta
Ileapaintzaile Eskola
M.E.C.-ek homologatua

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52
EIBAR

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Susana Martin

Lumaz idaztearen artea

Susana Martin arrasatearrak 16 urte besterik ez ditu eta lumaz idazten lehen saria irabazi du. Iaz ere lehiaketa honetara aurkeztu zen eta orduan ere berak irabazi zuen. Aurten jaso duen saria urrezko luma eta 30.000 pezeta izan dira.

— Zer dela eta aurkeztu zara lehiaketa honetara?

— Iaz aurkeztu nintzen eta irabazi ondoren esan nuen bezala aurten ere aurkeztu egin naiz. Iaz ilusio handia egin zidan eta aurten nahiz eta aurten ere frogatzea erabaki nuen.

— Eta besteen berri baduzu?

— Bai, beste lan batzuk ere ikusi nituen eta nirea baino hobekak zirela uste dut. Ez dakit zergatik aukeratu duten nire lana baina 10.100 lanetatik oso arraroa iruditzen zitzaidan nirea aukeratzea, iaz ere hala gertatu zitzaidan. Partehartzaileetarikoa bat nire klasekoa da.



— Nola definituko zenuke zure estiloa?

— Ez dut uste defini daitekeenik. Baina nire lagunek esaten dutenez, idazteko oso era arraroa daukat. Niretzat ez dago definitzeko erarik. Piska bat etzanda idazten dut baina besterik ez.

— Lehiaketarako testua idatzi baino lehen frogatzen asko egin dituzu?

— Ez, egunero idazten dut eta horregatik ez dut behar izaten frogatzen asko

egiterik. Urte askotan ez dut aldatu nire idazteko era eta uste dut horrela jarraituko dudala. Idazteko eran behintzat ez dut uste aldaketa asko izango dudunik.

— Ze motatako lumarekin idatzi duzu artikulua?

— Pasa den urtean sari bezala irabazitako urrezko lumarekin. Egunero idazteko orduan nahiago izaten dut boligrafoa. Kasu berezietan lumaz idaztea ere gustatzen zait.

— Idazteko erak pertsonalitatearekin zerikusia duela uste duzu?

— Ez dakit, hori gai horretan adituak direnek esan beharko dute baina nire ustez ez du zerikusi handirik.

— Beste lehiaketa batzuetara aurkezteko asmorik?

— Momentuz ez. Baina urte bi hauetan izan dudana arrakasta ikusi ondoren, datorren urtean ere aurkeztuko naiz.

El recinto que albergará la Exposición Universal de 1992 está siendo construido en Sevilla, en las 215 hectáreas que rodean el antiguo monasterio de la Cartuja, situado en el borde oeste de la ciudad, entre dos brazos del río Guadalquivir.

Susanaren idazlana.

LABURRAK

◆ Marrazki eta pintura ikastaro berria

Monterroneko marrazki eta pintura ikastaroetan irakasle berria hautatu dute: Arte Ederretan lizentziaturiko Mari Jose Azkara. Datorren azaroaren 19an bukatuko da ikastaroetan parte hartzeko matrikula epea eta 12.000 pezeta ordaindu beharko dira. Talde mugatuak izango dira, 20 pertsonakoak gehienez ere. Klaseak astegunetak 5etatik 8etara.

◆ AED lehiaketako partaideak

AEDk antolatzen duen "Arrasate 92" eta "lokin Zaitegi" lehiaketetan pasa den asten bukatu da lanak aurkezteko epea. Ipuinetan 146 lan aurkeztu dira, poesian 24, bertso paperetan 39, diapositibetan 12, argazkietan 4, bideoan 3 eta komikian 2. Bestalde, Kutzaren laguntzarekin antolatu den lokin Zaitegi lehiaketan 10 lan aurkeztu dira, frantsesetik, katalanetik, ingelesetik, filandesetik eta portugesez besteak beste. Sari-tuen izenak Santamasetan jaikingo dira.

◆ Bi erakusketa berri zabaldu dira

Harresi eta Monterron-Aretoetan bi erakusketa berri zabaldu dira. Alde batetik, ikusten ikasi erakusketaren barruan, Kua-droaren barrena izenekoa zabaldu zen pasa den asteazkenean Monterronen. Eta Harresi Aretoan aldiz, German Amurrioren eskultura erakusketa pasa den larunbatean.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 05 65**

URRIZ
ERAIKUNTZAK
 Olarte, 30 etxabea.
 Tfnoa: 79 77 11
 Faxa: 79 77 11
 ARRASATE
 Postakutxa: 118

SALBERRI
 HARATEGIA-URDAITEGIA

 Azoka Plaza, 22.postua
 Tfnoa: 79 12 09 ARRASATE

MITOLOGIA

BASAJAUNA

Baso edo oihanetako txokorik ezkutuenetan, nahiz leku altuenetan dauden kobazuloetan bizi den gizakia da. Giza itxurako gorputz garaia dauka. Buruko adats (ile) luzea, belaunetaraino iristen zaio, aurpegia, bularra eta sabelalde estaliz. Zenbait lekutan diotenez, bere oin bat gizakiarena bezalako da; bestea, berriz, azalera zirkularrekoa.

Artaldean zaindaria da. Ekaitza datorrenean, artzaiak oihuka ohartarazten ditu, abelburuak leku egokira eraman ditzaten. Eskortan edo inguruan dagoenean, otsoa hurbiltzea eragozten du. Ardien arranek ateratako zarata bateratua denean, artzainek lasai egin dezakete lo, jakin baitakite Basajauna inguruan dabilela.

Hasierako artaldeak txikiak zirela eta, badago asko makizun bat:

"Baziren bi artzain. Batek esan zion besteari: emaidazu ardi bat, horrela zure artaldeak eta nireak ardi kopuru bera izango dute. Baina besteak: emaidazu zuk ardi bat, eta nire artaldea zurearen bikoitza izango da. Zenbat ardi du artzai bakoitzak?"

LIHER LARREA



Arrasaten ezezik, kanpoan ere askotan dantza egiten dute Lore Gazteakekoek.

'Lore Gazteak' dantza-taldea mutil beharrean

Euskal dantzaren mundua ez dabil bere historiako garairik onenean, Arrasaten behintzat. Euskal-jaietako giroa eta herri-partaidetza, orain urte batzuetakoarekin alderatuz gero, asko jaitsi da eta dantza-taldeek igarri dute hori.

Arrasateko Lore Gazteak dantza-taldea mutil faltan dabil, eta berririk ez aurkituz gero, baliteke hemendik denbora gutxira Lore Gazteak dantza-taldearen desagerpenaz hitz egitea. Lore Gazteak orain 27 urte inguru sortu zen, eta denbora honetan Arrasaten Euskal dantzen alorrari eutsi egin dio eta dantzari asko

jantzi dira bertan. Dantzak landu ondoren, Lore Gazteak ekaleratu egiten ditu, jendeak euskal kulturaren zati inportante bat bizirik dagoela ikus dezan eta guztion partaidetza garrantzitsua dela dantza-taldearen iraupenerako.

Zita ostiralerako

Normala denez, Lore Gazteak dantza-taldeak bailara eta Euskal Herriko beste talde askorekin harremanak ditu; gauzak horrela, urteko ekintza gehienak herritik kanpo egiten dira, inguruetako Euskal Jaietan. Beraz, Lore

Gazteak-en sartu nahi duenak badaki zer aurki dezakeen: Euskal dantzak lantzeko ordu piloa sartu beharra, baina jende berri asko ezagutu eta dantza-saioen ikusle txaloak ziurtatuta izatea.

Beraz, Euskal Dantzak ikasi eta egitea nahi duten mutil guztiei ostiralean Lore Gazteak dantza-taldearen lokalera agertzeko gonbidapena dute, arratsaldeko 8etan eta liburutegi zaharraren azpiko lokalean. Horretaz gain, norbaitek txistua jotzen ikasi nahiko balu ere, aukera berbera izango luke, beharra ere antzerakoa da eta.

Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32




Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Maila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.

ZATOZ GURE BULEGOETARA!

(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)



Salmenta eta
zerbitzua

IBABE
GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

· ESAERA ZAHARRA ·

"Giltzarik bako atea, zaunka bako txakurra, jo, sartu ta barrura"

IA



H

N

Aspaldian ikusi duzu Mitxel?

· GURUTZEGRAMA ·

1	2	3	4	5	6	7
8				9		
10				11		
12				13		
14						
15				16	17	18
19						

J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Arrasateko Udal Kirol Erakunde Autonomoa. 6. (Ald.) Begirada. 8. Pilotan jokatzeko lekua. 10. (Ald.) Bi, soilik erabiltzen dira. 11. Hustu aditzaren infinitiboa. 12. Ezkutariak. 14. Egunsari. 15. (Ald.) Arraio. 16. Heze. 19. Kolpea.

Bertikalak 1. Eguneroko azken jatordua egin. 2. Harrokeria. 3. Gantzak. 4. Ekaitz. 5. Kanpo. 6. *Ohiturako* bokalak. 7. Zikina. 9. (Ald.) Hitz grekoa. 13. Fedel Castoren anaia. 17. Mendelevioa. 18. Omen.

· HOROSKOPOA ·

Aries Aldatu umore hori, bestela laster ozpinduta zaudela esango dute.

Taurus Garai txarra zuretzat, hobe etxean gelditzea.

Gemini Hego haizearen modukoa zara, aldakorra, baina hori ez duzu aldatuko.

Cancer Noiz behinka ahoa itxi, besteek ere hitz egiteko eskubidea dute.

Leo Erosi loteria, etxetik gertuen dagoen tokian, diru piloa irabaziko duzu eta.

Virgo Zaindu zeure burua apurtxo bat, denbora ez da alperrik pasatzen.

Libra Lana bizi izateko egin behar da, eta ez lanerako bizi.


Scorpio Praka gorriak niki gorriarekin jazten badituzu, jendea izutuko duzu.

Sagitarious Nahikoa da, sekula ez diozu lagunduko emazteari?

Capricorn Haize egunak datoz, beraz ez jantzi gonarik.

Aquarius Jokatzen ez baduzu ezin zaitzue tokatu, zu bai xurra.

Piscis Irrifarre polita daukazu, baina ez ahaztu hortzak eguneroko 3 aldiz garbitzea.



Ezagutu itzazu PVCren bitartez gaur egun eskura dauzkazun leiho miresgarriak, ez hotsik, ez berorik, ez soinurik...

Markulete Industrialdea, 20. pabiloia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE

ARANTZAZU ZUBIAREN GOMENDIOA



Arantzu Zubia gimnasia erritmikoko irakaslea da, eta beharbada horregatik gustatzen zaizkio ikuskizunak. Berearekin zerikusi handirik ez duen bat gomendatu nahi digu: Tricicle talde kataluniarraren Tetrific lana. Beldurrezko antzezlanada, baina etengabe barre eragiten duena. Obra bera ezezirik, koreografia, muntaia eta antze-koak ikaragarri politak iruditu zitzaizkion, fijatu ere asko fijatu zen eta. "Izatez ez naiz kalezalea, eta nahiago dut ikuskitzen bat ikusiz denbora ematea".

PROGRAMAZIOA



14 Larunbata

4.00 Tertulixan
4.30 ATBketan

15 Igandea

8.00 Larrugorritan
8.30 Monterock
9.00 Mondrago

16 Astelehena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Mondra Sport
10.00 Asteko Zinea:
2001: Espazioko Odisea.

17 Asteartea

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Larrugorritan
10.00 Asteko Zinea:
2001: Espazioko Odisea.

18 Asteazkena

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Pareak jokuan
10.00 Asteko Zinea:
2001: Espazioko Odisea.

19 Osteguna

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 ATBketan
10.00 Asteko Zinea:
2001: Espazioko Odisea.

20 Ostirala

1.30 Eguerdiko Berriak
1.35 Bai horixe! Follow me
7.30 Dokumentala
8.8.30.9 Berriak
9.30 Monterock
10.00 Asteko Zinea:
2001: Espazioko Odisea.

SOLUZIOAK

Iaz herrian. (Ia-z(h)errt-n)

JEROLIFIKOA

Et.
Saskita. 9. Ohr. 13. Raul. 17. Md. 18.
Koipeak. 4. Eubat. 5. At. 6. Oina. 7.
Bertikalak 1. Afaldu. 2. Urgintu. 3.
19. Ukaldia.
parrak. 14. Dieta. 15. Uia. 16. Umel.
Frontoia. 10. Agib. 11. Hus. 12. Lu-
Horizontalak 1. Aukera. 6. Os. 8.

GURUTZEGRAMA

KOMIKIA

TAIPICHI TALDEA




TXIFI

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK

Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

NAROKI
Urrezko bitxiak

NAROKI
Opariak, Jostailuak, Liburuak,
Paperdegia
Erdiko kale, 23 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 47

Clio


Zuk nahi duzun autoa da Clio.

Egungo erakargarriena. Horregatik, erraz-erraz jarri dizugu: orain, lehen urtean 10.000 PTA ordainduta eros dezakezu. Aukera ezinobea da.

Finantziazioko aukera apartak ere baditugu zuretzat: %10eko sarrera eta 48 hilabetera arte. Zatoz informazio bila zure Renault banatzaileira edo dei egin 900 100 500 telefonora.

Zure nahia bete da.

RENAULT CLIO RL 1.1 3a. FINANTZIATZIO ADIBIDEA	
P.S.N.	-----
Hasierako sarrera	1.050.000 PTA *
Finantziatzeko kopurua	350.000 PTA
Zenbat hilebete	700.000 PTA
1. urtean	48
2. urtean	10.000 PTA/hilean
3. eta 4. urtean	19.000 PTA/hilean
Tipo nominala	28.000 PTA/hilean
T.A.E.	%16,32
	%18,26



DESIO BETEA.

Lehen urtean **10.000 PTA*** hilean.
Sarrera **350.000 PTA**

Informazioa:



MECA, S.A.
ARRASATEKO RENAULT BANATZAILEA